

# 255.000 etxebizitza huts

## eta ez da neurririk hartu nahi

### Sagardotegien gida eta posterra opari

- **Nerea Martinez** 330 kilometroko lasterketa, mendi korrikalariaren aurtengo erronka
- **Mugaldekoak**, musika eta literatura «Deus ere egiterik ez dagoela orotarazteko diskurtsoak ez ditugu maite»
- **Añarbeko basoa** Aurten erreserba izendatzea espero dute ekologistek
- **Euskara** Galbidean zena Iruritan nola biziberritu duten azertu du Paula Kasaresek
- **Net Hurbil** 40.000 indigenek mugimendu zapatista aldarrikatu dute Txiapasen

[www.argia.com/multimedia](http://www.argia.com/multimedia)




### Beranduegi

Interneteko telebista saioa asteartero: umorezko albistegia, lehiaketa, elkarrizketak, erreportajeak, kultura...



### Bideoak

Elkarrizketak, erreportajeak eta albistek formatu arin eta azkarrean astero.



### Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.



### Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.




### Ekitaldiak

Hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean eta euskaraz, baita nazioartean emandakoak ere.



### Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.



### Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpitoluekin.



### Bereziak

Teknologia berriak baliatuz, informazioa emateko muntaia bereziak: kronologia interaktiboak, mapa ilustratuak...



### Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.



Azala: GARBINE  
UBEDA GOIKOETXEA



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asumendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Iureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. [www.argia.com](http://www.argia.com): Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: [komertzial@argia.com](mailto:komertzial@argia.com). Harpidetzak: [harpidetza@argia.com](mailto:harpidetza@argia.com). Erredakzioa: [kazeta@argia.com](mailto:kazeta@argia.com). Interneten: [www.argia.com](http://www.argia.com). Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundua



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



## NON ZER

2013ko urtarrilaren 20a, 2.353. zenbakia

### ASTEKO GAIA

**ETXEBIZITZA HUTSAK** Alokairu publiko soziala sustatzeko premia. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 4

### PERTSONAIA

**NEREA MARTINEZ URRUZOLA:** «Ez naiz super atleta baina bai kaskagorra». REYES ILINTXETA / 10

### GAIK

**SAGARDOA** Otorдутik harago, bisita gidatuak sagardotegietan. IRATI SARASUA ARABAOLAZA / 15

### IRITZIAREN LEIHOA

**SABEL ALOKATUA** AMAIA LASA ALEGRIA / 20

**DEMOKRAZIA +** IÑAKI BARCENA HINOJAL / 22

**KULTURA LUXU BIHURTU DA EGUNKARIETAN**

GORKA BEREZIARTUA / 23

**TXANDAN** Lehen gezurra. EDU ZELAIETA / 22

**BERTSO BERRIAK** Bandera espāñolari jarriak.

JOKIN SOROZABAL / 23

**ZIRTAK** Epitafioa. ANGEL ERRO / 24

### ERDIKO KAIERA

**MUGALDEKOAK:** «Gure zuzenekoak pieza bakarreko estraperlo poetiko-musikalak dira». IKER BARANDIARAN / 26

**BEGIRADA GURUTZATUAK** Dantza garaikideak batzen gaitu.

MYRIAM GARZIA / 29

**LITERATURA** IGOR ESTANKONA, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 32

**MUSIKA** JOXI UBEDA, GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 33

**DENBORA-PASAK** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34

**ALEA** Ostarte urdinak. MYRIAM GARZIA / 35

**ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA** JOXERRA AIZPURUA / 36

**LANDAREAK** JAKOBA ERREKONDO / 37

**DENBORAREN MAKINA** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

### TERMOMETROA

**AÑARBE** Gipuzkoako harizti handiena, erreserba izateko zain. IURE EIZAGIRRE / 39

**EUSKARA** Galdua zirudiena nola berreskuratu duten Iruritan. MIEL A. ELUSTONDO / 42

**MAPUTXE HERRIA** Gatazka gaiztotzen ari da hainbat hilketaren ondorioz. LANDER ARBELAITZ / 46

**EKONOMIAREN TALAIAN** JUAN MARI ARREGI / 47

**EUSKARA ALBISTEAK** ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

**NET HURBIL** Maien mundua berpiztu EZLNrekin.

PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

**MALTZAGATIK** XABIER LETONA / 50

# Alokairu publiko soziala sustatzeko premia

Krisi betean amaitu gabe geratu diren eraikuntzak, saldu ezinik prezio altuetan mantentzen dituzten pisuak, administrazioarenak diren etxe hutsak, erabiltzen ez diren kostaldeko bigarren apartamentuak... 255.000 etxebizitza huts baino gehiago daude Euskal Herrian, eta moduak badaude horri aurre egiteko, baina ez dira neurriak hartzen.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Argazkiak: Dani Blanco

HIPOTEKA EZ ORDAINTZEAGATIK ugaritu diren desjabetzeen aurretik jada, datuak ez ziren makalak: Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, bigarren bizitxeak eta etxe hutsak 42.000 inguru ziren 2009an, etxe guztien %25 ia (Lurra eta Etxebizitzaren Aldeko Kolektiboaren arabera); Nafarroan 38.612 etxe huts zenbatu zituen 2010ean Sustapen Ministerioak, etxe guztien %12; eta urte berean EAEn pisu hutsak 75.000 bat zirela adierazi zuen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak. Batzorde horrek berak eskaera ere kalkulatu zuen: 75.000 bat etxe behar ziren denera. Ekuazioa ez da hain sinplea, baina eskaeraren eta etxe hutsen datu ofizialak parekoak izanik, norberak atera ditzala ondorioak.

Etxebizitza izateko eskubidea aldarrikatzen duten mugimenduek argi daukate: alokairu publikoa edo soziala da irtenbidea. Jabetza publikoa izan behar dute etxebizitzek, herritarren beharretara moldatuko diren baldintzetan eskaintzeko –alokairu sozialean–. Egun, ordea, oso bestelakoa da errealitatea: bai merkatu librean, bai Babes Ofizialeko Etxebizitzaren kasuan, jabetza pribatua da nagusi. EAEn esaterako, eraikita dagoenaren %91 jabetzan dago eta %9 alokairuan; bada, %9 horren erdia baino gutxiago, %4 inguru baino ez da alokairu publikoa. Legea ere alde du jabetzak, zergen kenkariak onuragarriagoak direlako etxearen jabe izanez gero, alokairuan egonda baino. Areago, etxe hutsak bul-

tzatzen ditu legeak berak. Eraikitzen diren etxe berrien %10 hutsik geratuko direla aurreikusten du Lurralde Antolamenduak: tokian tokiko plan orokorra prestatzerakoan, zenbat lur beharko den kontuan hartzeko garaian, etxebizitza hutsak hartzen dituzte aintzat eta lur horretan X etxebizitza behar badira, X + %10 eraikiko dituzte. “Hortaz, lurzoru gehiago kontsumitzen da, ingurumenarentzat eta herriarentzat horrek dakartzan kalteekin”, kexu da Amaia Elorza, Etxebizitza plataformako kide eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko teknikaria.

Iparraldean, legeak dio etxeen %20 bideratu behar dela etxebizitza sozialetera, 20.000 biztanle baino gehiagoko herrietan. Etxebizitza sozial horiek, dena den, salmentakoak nahiz alokairukoak izan daitezke. Egoera oso bestelakoa da Europako herrialde askotan: ohikoa da etxebizitzaren %50 baino gehiago alokairu soziala izatea, edo alokairua,

**EtxebizHitza plataformaren ustez, ondasun higiezinaren gaineko zerga igo behar zaio bigarren etxea hutsik duenari, eta hala ere hutsik mantentzen badu, denbora batez administrazioak jabetza bereganatu eta alokairu sozialean atera beharko luke**

“baina alokairu pribatua ere merkea da: gurean alokairua ez dago erregulatua eta merkatuan jabetzak ezarritako baldintzen menpe dago, prezio oso altuak ditu; atzerrian aldiz, alokairua arautua dagoelako edo merkatua ez delako jabetzara bideratu, prezioak askoz baxuagoak dira eta beraz pribatua ere eskuragarria eta arrazoizkoa da ekonomikoki –azaldu digu Elorzak–. Hemen, 800-900 eurotan dago alokairu prezioaren batez bestekoa, zeinek ordaindu dezake hori, batik bat gaur egun?”. Elkartzen gizarte mugimenduaren



EAEn, eraikita dagoenaren %91 jabetzan dago eta %9 alokairuan; bada, %9 horren erdia baino gutxiago (%4) baino ez da alokairu publikoa. Aldiz, Europako herrialde askotan %50 baino gehiago da alokairua, eta hemen baino askoz merkeagoa, arautua dagoelako edo merkaturia ez delako jabetzara bideratu.

ustez, adibidez, alokairuan sartzeagatik herri-tarrak gehienez bere diru-sarreraren %15 ordaintzea finkatu beharko luke legeak.

### **Etxe hutsen jabeak nola akuilatu**

Zein neurri jarri daitezke martxan hutsik dauden etxebizitzetarako erabilgarritasuna eman eta alokairu sozialean jartzeko? Hiru jabe mota ezberdindu behar ditugu lehenik: pisu hutsa duen jabe partikularra, etxe ugari dituzten jabe handiak eta administrazio publikoaren esku dauden eraikinak. Jabe partikularrak, etxea hutsik badu, moralki alokatzeko betebeharrak duela azpimarratu du Kepasakonlakasa elkarteak. Amaia Elorzak ere ez du zalantzarik: “Gaur egun sakratua da jabetza pribatua eta pisua hutsik izan nahi duenak hala mantendu dezake, baina denok etxebizitza izateko eskubidea dugun neurrian, alokatu nahi ez duen jabeak zigorrak jarri behar zaizkio, ondasun higiezinaren gaineko zergak igo behar zaizkio, ez dadin hain eroso izan hutsik duen

bigarren etxeari erabilgarritasunik ez ematea. Karga hori jarrita ere hutsik mantendu nahi badu jabeak, plataforman uste dugu administrazioak aldi baterako desjabetzea jarri beharko lukeela martxan, pertsona horri etxearen gaineko eskubidea kendu beharko liokeela denbora batez, administrazioak berak alokairu sozialean jartzeko”.

Gobernuek Etxebizitza Legearen bidez bultzatu lezakete higiezinaren gaineko zerga igozea, eta EAEn diputazioek ere badute horretarako eskumena. Udalek zer egin dezaketen? Beren esku dauden tasak puztu etxebizitza hutsei, akuilu ekonomiko gisa, esaterako zabor tasa. Aitzitik, Hegoaldean hartzen diren neurriak eskasak direla iritzi dio Elorzak: jabe partikularrak etxe hutsa administrazioaren gestiopean uztearen truke, alokairu sozialean izango duen azken prezioaren eta jabeak finkatzen duen prezioaren aldea ordaintzen dio administrazioak, “baina hori ez da alokairu publikoa sustatu eta arautzea,

## ETXEBIZITZA HUTSAK

etxea alokairuan jartzeagatik jabeari ordain-tzea baizik. Salneurri altua finkatzen jarraituko du jabeak, nahiz eta erakunde publikoak aldea ordaindu; bidezkoa al da hilero 1.000 euroko alokairua eskatzea jabeak?”. Gazteei alokairua errazteko diru-laguntzak ematea ere filosofia bera dela gaineratu du: “Zer egin zuten etxeko nagusiek? Prezioak igo, berriz ere ez direlako alokairuaren kostua mugatzeko neurriak, diru emate neurriak baizik”.

Iparraldean, etxe hutsak eta bigarren etxeak argi bereizten ditu legeak. Hala, etxe hutsen gaineko zerga onartu dute hainbat udalerrik, Hendaia eta Donibane Lohitzunek kasu. Bigarren etxebizitzak ordea, ezin dira gehiago zergatu, “baina bada aukera bat: ezin zaienez etxe batzuei zerga igo eta beste batzuei ez, etxebizitza denak %15 igo daitezke eta gero lehenengo etxebizitzari beherapena egin. Proposamena egin dugu Hendaian, baina atzera bota digute”, dio Iker Elizalde Biharko Hendaia alderdiko kideak. Erakunde publikoek beste formula bat ere abiatu dute: etxe hutsak berritzeko lanen kostua hartzen dute beren gain, eta ordainetan hainbat urterako etxe horren alokairua kudeatzen du administrazioak.

Hala ere, partikularretatik harago, afera honetan agerikoa da jabe handien erantzukizuna, dituzten eraikin hutsen kopurua eta jarrera

**Batzuentzat etxe hutsa da inor errolatuta ez duena; beste batzuek eskatzen dute errolatutako etxeetan argia eta uraren faktura ere begiratzea**

espekulatuzailea aintzat hartuta. Ugariak dira bankuek, eraikitzaileek eta enpresa eta erakunde pribatuek dituzten lurrak, bukatu gabeko eraikinak eta saldu gabeko etxebizitzak. Ezer eraiki gabe lursailak mantentzen dituzten “lurraren okupe” jabetza kendu behar zaiela aldarrikatu dute Kepasakonlakasakoek, esku publikoetara aldatzeko. Berdin amaitu gabe utzi dituzten urbanizazioekin: “Urte oparotan, eraikitzaileek sarri nahita gelditzen zituzten lanak, aurretik eraikita zituzten beste etxebizitza batzuk garesti saltzeko; orain, nahi duten prezioetan saltzea lortzen ez badute, erabakitzen dute ez eraikitzea, edo bukatuta dauden pisuak hutsik mantentzea, salneurria ez jaistearren. Baina diru-sarrera publiko handia egon da urbanizazio horietan, besteak beste ura, elektrizitatea eta abar sartzeko. Botere publikoak eskumena izan beharko luke jabetza horien ardura hartzeko, eraikitzaileak beren eginbeharrak amaitzera behartzeko eta etxe horiek guztiak alokairu sozialean eskaintzeko”, dio Elorzak. Eta gauza bera bankuek, jendea kaleratu ostean, hutsik duten etxe andanarekin: jende horri alokairu sozialean eskaintzera behartu beharko lituzke legeak.

Azkenik, erakunde publikoak eurak dira eraikin huts askoren jabe eta horri izugarria deritzo EtxebizHitza plataformako kideak, “denon ondasuna galtzen uztea” delako,

publikoak eskumena izan beharko luke jabetza horien ardura hartzeko, eraikitzaileak beren eginbeharrak amaitzera behartzeko eta etxe horiek guztiak alokairu sozialean eskaintzeko”, dio Elorzak. Eta gauza bera bankuek, jendea kaleratu ostean, hutsik duten etxe andanarekin: jende horri alokairu sozialean eskaintzera behartu beharko lituzke legeak.

Azkenik, erakunde publikoak eurak dira eraikin huts askoren jabe eta horri izugarria deritzo EtxebizHitza plataformako kideak, “denon ondasuna galtzen uztea” delako,



Nahi duten prezioetan saltzea lortu ez dutelako, hainbatetan bertan behera uzten dituzte eraikitzen hasitako etxe berrien obrak. Horien jabetza botere publikoak hartzeko eta eraikitzailea bere eginbeharrak amaitzera behartzeko eskatzen dute etxebizitza eskubidearen aldeko elkarrekin.

## Okupazio arautua, irtenbide Erroman

BERME BATZUEN BARRUAN, okupazioa izan daiteke etxe hutsek erabilgarritasuna berreskuratzeko modua. Hala frogatu dute Erroman Autorecuperero kooperatibako kideek. 1989 eta 1999 urteen artean, Erroma erdigunean izandako desjabetzeen ondorioz 300.000 herritar kalean geratu ziren. Alokairua oso garestia zela-eta, hirigunean hutsik zeuden eraikin publikoak okupatzen hasi zen jendea eta mugimendua indartzeko aipatu kooperatiba sortu zuten, etxea zaharberritu, administrazioarekin nego-

ziatu eta bertan bizitzen jartzeko eskubidea lortzeko asmoz. Erabatekoa da etxearen birziklapena: ingurua zaintzen eta energia berriztagarriak bultzatzen dituzte eta komunitateko lanak eta zeregi-

nak antolatzeko denbora bankua dute.

Presio sozialak bere fruituak eman zituen, eta Erroma hartzen duen Lazio eskualdean onartutako lege bati esker, kooperatibek eraikin publikoak okupatzea ahalbidetu zen. Publikoa da jabetza, baina gestioa bizilagunena beraiena, eta administrazioari kanpoaldean etxeak eraikitzea baino merkeagoa zaiola diote Autorecuperoko kideek. 1998tik, eredu hau jarraituz dagoeneko ehun etxe baino gehiago berreskuratu dituzte Italiako hiriburuan.



beharra hain larria den garaioan. Politikariak hasi dira etxe hutsen eroldaz hitz egiten, horiek alokairu publikora bideratzeko beharraz... baina oro har ez dira harago joan. Elorzaren esanetan, “alokairu publikoa gehitu diote diskurtsoari, baina etxea merkatu ondartzat duen politikaz mintzo dira aldi berean, etxebizitzaren merkaturia salbatzeaz. Etxebizitza Legearen proiektuan esaten da eraikuntza berrien negoziarioa agortua dagoela, baina zaharberritzearen merkaturian pentsatzeko ordua dela. Etxebizitza eskubide gisa ulertuz gero, ez lirateke arituko merkatuaren hizkuntza horretan hitz egiten”.

### Etxebizitza Lege tranpatia

Hain justu, aurreko Eusko Jaurlaritzak joan aurretik onartu duen Etxebizitza Lege Proiektuak salmentaren eta jabetza pribatuaren eredu mantentzen du eta ikusteke dago gobernu berriak norabide berari eutsiko al dion. Zehazki etxe hutsen atalean, bi neurri aipatzen ditu lege proiektuak: hutsik dauden bizitokiei zerga bat ezartzea eta aldi baterako desjabetzearen aukera. Beste bi amarru ditu legeak, ordea, neurriok ezerezean uzten dituztenak: batetik, zerga ez da ezartzen, baik eta zerga hori ezarri ahal izateko baimena ematen du; bestetik, etxearen salmenta edo alokairu eskaintza egitearekin nahikoa da betebeharrak legalei iskin egiteko. Alegia, nahi den prezioan nahi den lekuan iragarkia jarri

**“Jabetza pribatua aitzakia bilakatu da berez eskubide dena merkatu ondare bihurtzeko, baina jabetza pribatuak ere funtzio sozial bat bete behar du eta hala ez denean, kolokan jarri behar dugu”**

Amaia Elorza,  
EtxebizHitza

eta norbaitek onartuz gero ere ezetz esatea aski litzateke, etxe hutsa huts eta norberaren jabe-

gopean gordetzeko. Laburrean, azken araudiak ere, aurreko legegintzaldikoen gisan, ez du mekanismorik jartzen hutsik dauden bizitoxeei erabilera emateko.

Etxebizitzaren Behatoki bat beharrezkoa dela diosku Iker Elizalde eta Euskal Herriko Etxebizitza Institutu Publikoa eskatu du hainbat elkarterek. Gaiari serio helduko dion erakunde bateratua nahi dute, finean. Azken

legegintzaldian, Etxebizitzaren Aldeko Itun Soziala abiatu zuen Jaurlaritzak, arlo ugartako eragileekin elkarlanean. Baina bileretako ildoak interes ekonomikoetara mugatzen zirela-eta, gizarte eragile gehienek Ituna utzi zutela adierazi du Amaia Elorzak, eta ondoren, Itun Sozial hankamotz horren aterpean jaio zela Lege Proiektua.

### Zer da eta zer ez da etxe huts erabilgarria?

Ez dago definizio bateraturik eta horrek katramilatu egiten du zenbait kontuak eskatzea. Etxe hutsak erabilgarria izan behar du —edo erabilgarri izateko atondu daitekeena— eta beraz, eguneroko bizitzarako baldintza jakinak bete behar ditu. Epeak ere ez daude garbi: urtebetez erabili gabekoa da etxe hutsa batzuentzat, bi urtera arte luzatzen dute epe hori bestetzuek. Hutsik dagoen erabakitzeke zein datu hartzen diren aintzat, iritzi ezberdinak daude hor ere: ez da berdina inor errol-

# ETXEBIZITZA HUTSAK



datuta ez duen etxea baino ez hartzea etxe hustzat, edo erroldatuta egonagatik argia eta uraren faktura ere begiratzea, pisuan norbait erroldatuta egon daitekeelako bertan bizi gabe. “Hala ere –dio Elorzak–, errolda bera eskatzea jada urrats bat da, hiru arrazoi nagusirengatik: batetik, kostaldeko herri ugarietan bigarren etxea duen jende franko dago erroldatu gabe eta hilabete askotan hutsik dagoen apartamentu horri udalak zerbitzuak eskaintzen dizkion arren, ez du herrian zergarik ordaintzen; bestetik, legeak Babes Ofizialeko Etxebizitzak sustatzera behartzen du udala, herrian erroldatuta dagoen jende kopuru jakin batetik gora; eta hirugarrenik, banku eta eraikitzaileek inor erroldatuta ez duten pisu asko eta asko dituzte hutsik, eta presio neurria izango litzateke”.

## Babes Ofizialeko Etxebizitzen eredia ezbaian

Merkatuko eraikuntzaren filosofiak kutsatu ditu Babes Ofizialeko Etxebizitzak (BOE). Urte askoan pisu handiegiak eraiki direla sala-

**Babes Ofizialeko Etxebizitzak egiten ari dira Donostiako Morlansen (argazkian). Babes Ofizialeko Etxebizitzak alokairuan eskainita, salmentan baino malgutasun handiagoa lukete etxearen baldintzak herritarren garaian garaiko beharretara moldatzeko.**

malgutasun handiagoa luketelako herritarren garaian garaiko beharren arabera moldatzeko etxearen baldintzak (kideen arabeko tamaina, diru-sarreraren arabeko alokairua...). Gainera, BOEak ez direla saltzen? Alokairu merkea bideratuz gero, ziur jendea sartuko dela”. Udalei nahiz gobernuei, biei dagokie –BOE sustatzaileak biak diren neurrian– alokairu publikoko Babes Ofizialeko Etxebizitzak bultzatzea.

Jabetza pribatua al da, ondorioz, denaren errudun? Kontzeptua ulertzeko modua da gakoa, Amaia Elorzaren aburuz: “Jabetza bera baino, eman zaizkion konnotazio eta gehiegizko pribilegioak dira arazoa. Merkantilizazio prozesuan, jabetza pribatua aitzakia bilakatu da berez eskubide dena merkatu ondare bihurtzeko eta ahaztu egin zaigu batzuen pribilegioak ezin direla egon besteen eskubideen gainetik; jabetza pribatuak ere funtzio sozial bat bete behar du eta hala ez denean, kolokan jarri behar dugu”. ■







# 2013 BERTSO EGUNA

Urtarrila<sup>ren</sup> 26<sup>an</sup>  
Donostia<sup>n</sup>

12:00 - KALEZ-KALE  
Donostiako Alde Zahar<sup>rean</sup>

18:00 - EKITALDI NAGUSIA  
Kursaaleko Areto Nagusian

21:00 - AFARIA eta FESTA  
Kursaaleko Ni<sup>Neu</sup> Jatetxean

Antolatzaileak:



**donostiakultura.com**  
San Sebastián, ciudad de la cultura

Babesleak:



Laguntzailea:



NEREA MARTINEZ URRUZOLA

# «Ez naiz super atleta baina bai kaskagogorra»

Non gogoa, han zangoa, eta alderantziz. Nerea Martinez iruindarra eliteko mendi korrikalaria da. Munduko onenetakoa gaur egun. Aurten erronka handia du begi bistan: Tor des Geants, 330 kilometroko lasterketa puska, lau egun goiti eta behiti Alpeetan zehar. Harrapa ezank!

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco

## Zer dela eta joan zinen Iruñetik Madrila 22 urterekin?

Triatloi federazioko beka bat eman zidaten Blume izeneko goi errendimenduko zentroan ikasteko. Han hiru urte eman eta azkenean bertan gelditu nintzen. Lagun berriak egin nituen, giro polita dago eta gainera bidaiatzeko errazagoa da han egotea. Orain herri batean bizi gara. Ez da Pirinioetan edo Alpeetan egotea bezala, baina etxetik atera eta hortxe ditut bideak eta mendiak korrika egiteko. Madril hirian ezin izango nintzateke bizi. Lasaitasuna behar dut.

## Eta kirol zaletasuna noiztik?

Nire bizitza beti kirola izan da. 9 urterekin igeri egiten hasi nintzen. Egunero entrenatzen nuen eta ez nuen ezta egun bat ere galdu nahi. 17 urterekin, entrenamendu berezirik gabe, Iruñeko Maratoi Erdia korritu eta irabazi egin nuen. Horrek bide berri bat zabaldu zidan. Igeriketean 20 urterekin kirolari bizitza jada bukatua zenuen, nire garaian behintzat, eta nik beste zerbait nahi nuen. Bizikleta erosi eta triatloia egiten hasi nintzen. Familian beti oso mendizaleak izan gara eta txikitatik mendira joaten nintzen asteburu oro, beraz hori dena nirekin neukan. Niretzat berriena bizikleta izan zen, baina segituan hartu nion koska. 22 urte nituela Madriletik deitu ninduten eta han nengoela beste kirol modalitate bat ezagutu nuen: Raid Abentura. Taldeka egiten den kirola da. Lau partaide izaten dira eta horietako batek emakumezkoa behar du izan. Taldeetako batean neska bat behar zuten eta hala hasi nintzen ni. Handik gutxira

erabaki nuen honetan zentratu nahi nuela. Blumetik joan eta nire kabuz bizitzen eta munduan barna bidaiatzen hasi nintzen. Mendien, bizikletan eta zaldi gainean ibili, eskalatu... Oso polita baina oso gogorra ere bai. Sei-zazpi egun aritzen zara korrika oso lo gutxi eginez, zu geldituta ere denborak aurrera jarraitzen duelako. Sei-zazpi egunetan agian soilik 18 ordu egiten genuen lo. Polita baina gogorra zen. Gainera taldekideekin ere jakin behar duzu bizitzen eta oso nekatuta zaudenean edozein gauzak gogaitzen zaitu.

Poliki-poliki ohartu nintzen mendian bakarrik korrika aritzea zela gehien gustatzen zitzaidana eta horrela, pixkanaka, mendiko lasterketetan sartzen joan nintzen.

## Kirol hau ikaragarri gogorra da, ezta?

Bai, noski, baina egunero lanera joateko goizeko seietan altxatzea ere gogorra da. 30 orduz mendian korrika egitea, lorik egin

## NORTASUN AGIRIA

**Nerea Martinez Urruzola**, 1972ko urtarrilaren 5ean Iruñean sortua. Txikitan igeri egitea gustuko izan eta 9 urterekin lehiatzen hasi zen. 17rekin zangoen gainean korrika hasi eta geroztik triatloi, raid abentura eta ultra trail edo mendi lasterketa gogorrak egiten ditu. Eliteko kirolaria izateaz gain osteopata da eta running trail eta ultra trail entrenatzailea ere bada (oso zorrotza gainera). Munduko probarik gogorrenetan emaitza bikainak ateratzen ari da. 2012an Andorran Ronda dels Cims eta Japoniako Fuji Mendiko lasterketa ospetsuak irabazi zituen.



SALOMON

SUUNTO

Sentieri

Salomon



gabe, gutxi janda, erdi deshidrataturik eta gora eta behera, zaila da, baina hori da orain gehien gustatzen zaidana. Hemendik bi edo hiru urtera auskalo zer egingo dudan. Kirola bai, seguru, baina zer ez dakit.

**Orain 41 urte dituzu eta sasoi betean zaude, baina noiz arte ikusten duzu zure burua honetan?**

Hori da jende askok eta nik ere neure buruari galdetzen diodana. Badakit urteak aurrera doazela eta nire gorputza beheraka joango dela. Inflexio puntu batera iritsiko naizela badakit. Hori garbi daukat eta ez dit axola. Une hori iristen denean gauzak beste modu batez planteatuko ditut. Oraingo oso ongi nago eta ilusio handiz. Egunez egun bizi naiz.

**Zenbat ordu irauten dute ultra trail lasterketa hauek?**

Distantzia eta altueraren arabera. 2012an 35 orduko bat eta 30eko beste bat egin nituen, adibidez.

**Gogorrena zuretzat zer da, lorik ez egitea?**

Ez. Raid Abentura egiten genuenean logurari hobekien eusten ziona ni izaten nintzen. Besteak animatzen eta taldea bultzatzen aritzen nintzen beti. Ez dakit adrenalinarengatik edo zergatik den baina ez dut horrekin arazorik izaten. Anoa postuetan minutu pare bat edo bost minutuko geldialdiak egiten ditugu 10 edo 15 kilometroan behin. Hor janari pixka bat hartu, hankak begiratu eta botila betetzen dugu.

**Zer jaten duzue lasterrean ari bitartean?**

Batzuetan arazo bat da. Ez da erraza jatea, askotan urdailak ez duelako jana asimilatzen, eta nik nahikoa arazo ditut alde horretatik. Orain elikagai likidoa hartzen dut, hori delako hobekien doakidana. Zerbait jaten saiatzen naizenean, sandwich bat edo barratxo energetiko bat, adibidez, azkenean dena bota egiten dut.

**Gaixoei ematen dietena?**

Bai, hori da, oso energetikoa eta oso erraz hartzen dena.

**Edateko, urik ez?**

Edari isotonikoak nahiago. Arranpak izaten ditut eta edari hauek laguntzen didate horiek kontrolatzen.

**Zer da gogorragoa hotza ala beroa?**

Ez dakit. Beroarekin askotan gelditzen zara pot eginda, deshidratatuta, baina hotzarekin blokeatu egiten naiz. Momentu oso latzak pasa ditut hotzarengatik. Nekatuta zaude-nean, gutxi eta gaizki jaten, zure gorputza

energiarik gabe gelditzen da eta tenperaturak gehiago eragiten dizu. Behar duzun guztia eramaten duzu motxila txiki batean: zira, eskularruak, txanoa... baina ahalik eta gutxi-ena. Gauzak okertzen direnean, ikusten duzu hor daramazuna ez dela nahikoa.

**Leher eginda amaituko duzu, noski.**

Bukatutakoan ez naiz gauza izaten astebe-tez. Faktura pasatzen dizu.

**Alderdi psikologikoa fisikoa bezain garrantzi-tua da?**

Bai. Ikusi ditut zenbait kirolari, oso ongi prestatuak, baina azkenean buruak huts egin diena. Helmugarako 20 kilometroren faltan gelditu egin direnak. Lasterketa hauetan beti dituzu gorabeherak. Une askotan pentsatzen duzu zer egiten ari zaren hor, izugarritzko jipoia hartzen eta, gainera, zuk nahi duzulako. Anoa gune batera iritsita gogoa ematen dizu han gelditzeko eta bueltak ematen dizkiozu buruari. Gogorra da. Nik oso momentu txar-rrak bizi izan ditut, baina halere ez zait inoiz gertatu amore eman behar izatea.

**Une latzenetan zerk ematen dizu indarra?**

Askotan nire familian eta lagunengan pentsatzeak, mutil-laguna helmugan egongo dela jakiteak, haraino iristeko egin dituzun entrenamendu guztiak gogoratzeak...

**Mendian ikasitakoak balio dizu eguneroko bizi-tzarako?**

Bai. Askotan pentsatzen dut hori. Kirolak asko lagundu dit gauzak baloratzen eta arazo-  
ei aurre egiten ikasteko. Honek denak indartu egiten zaitu.

**Iluntasunean, korrika mendian barrena baka-  
rrik, ez al zara beldur izaten?**

Bitxia da, baina lasterketa batean zaudela, zerbait antolatua dela jakinda, lasai joaten zara. Nahiz eta ordu asko bakarrik eman, ez dit beldurrik ematen eta ez dut horretan pentsatzen. Entrenatzen, aldiz, gauak ustekabean harrapatuz gero, hor bai pasako nukeela bel-durra. Beti joan izan naiz entrenatzera ezer esan gabe, baina orain, atera baino lehen esaten dut nora noan eta nondik. Eta telefonoa ere eramaten dut zer gerta ere. Baina hobe da halako gauzetan gehiegi ez pentsatzea.

**Heriotza ere gertu egon daiteke. Joan den udan Kilian Jornet korrikalari katalanaren kidea hil zen lasterketa batean...**

Bai, eta orain bi hilabete Reunion Uharteetan egin nuen azken lasterketan, beste parte-har-tzaile bat hil zen menditik behera amilduta. Oso kontzentratuta joan behar duzu eta zaila

da horren nekatuta zaudenean. Edozein ton-takeria, eroriko bat izan daiteke arriskutsua, baina autoa hartzen duzunean ere arriskuan jartzen ari zara.

**Bereziki zaintzen duzu gorputza?**

Osteopata eta fisioterapeuta naiz eta badakit masajeak hartu behar ditudala, luzamenduak egunero egin behar ditudala... Betidanik saiatu naiz zaintzen. Elikadura oso garrantzi-tua da. Gaur, hain zuzen ere, hemen Iruñean dietista batengana joatekoa naiz. Nik uste dut zure gorputza %100 egoteko oso garrantzi-tua dela jaten duzuna. Baina egia da presaka eta korrika ibiltzen garela eta nik bizitza anar-kiko samarra dut. Ez dut ordutegi finkorik, batzuetan bi orduz entrenatzen dut, bestee-tan zazpi, gero lanera joan beharra izaten dut... eta batzuetan horrek edozer gauza jatera eramaten nau.

**Genetika ona duzu?**

Badirudi baietz. Ni ez naiz aparteko ezauga-  
rrietako kirolaria. Gogo indarra dut, oso konstantea eta diziplinatua izan naiz beti. Ez ditut izugarritzko dohainak, ezta ikaragarritzko emaitzarik azterketa medikuetan. Ez naiz super atleta bat, baina bai kaskagororra. Hor egon naiz beti jo eta ke lanean nahi dudana lortu arte.

**Eliteko kirolaria izatea ez da nahikoa horretatik bizi ahal izateko?**

Badira lau bat urte hasi naizela masajeak eman eta osteopata lanetan. Lehen korrika egi-tetik bizi nintzen, baina orain bestelako era-bakiak hartzeko garaia heldu da, horrekin bakarrik ezin zarelako bizi. Batzuetan nahiko estresantea da.

**Kirolak garrantzia du zure alderdi pribatuan ere? Adibidez, haurrik izatea zure asmoen artean dago?**

Aldi berean ama eta eliteko kirolaria izatea ez da ezinezkoa, baina nik uste dut oso garbi izan behar duzula eta nik, momentuz, ama izateko behar berezirik edo asmorik ez dut. Nire bikotekidea ere oso kirolzalea da, ez da horretara soilik dedikatzen baina eskalatzen du, korrika egiten du mendian, txirindulan ibili ere bai... Horrela oso ongi gaude.

**Mundu osoan bidaiatzea nekagarria egiten zaizu?**

Hori da okerrena. Eta urtetik urtera gehiago kostatzen zait etxetik ateratzea. Lehen ilusio handiz prestatzen nituen bidaia guztiak eta astebe-te lehenago hasten nintzen maleta prestatzen. Orain azken momenturako uzten dut. Maleta zabaldu eta barrura bota dena.

## Lehiatu norekin?

**“Neure buruaren kontra beti. Askotan galdetzen didate ea hurrengo lasterketan zein lehiakide izango ditudan eta nik normalean ez dut jakiten, munduko txapelduna-edo ez bada. Ni neure buruarekin ari naiz lehiatzen. Nahikoa dut nire gorputza zaintzen eta nire marka gaintzen saiatzearekin”.**

## Askatasuna

**“Goizero ateratzen naiz entrenatzera eta ikaragarria da mendi gainetan bakarrik egotea, herria han behean dudala eta nire arnasa baino ez aditzea. Sentsazio ikaragarria da. Hor goian munduko erregina sentitzen naiz. Hori dena da lotu nauena”.**

## OFF THE RECORD

### Temoso

Hainbat hilabete joan dira Nerearekin hitz egiteko zain. Familia Iruñean izanda lasaitasun apur batez solas egitea goiz ala berandu lortuko genuelakoan, hamaika mezu eta dei gurutzatu ditugu. Elkarrizketa baino gehiago, jazarpena dirudi honek, pentsatu dut aunitzetan nire artean. Apur bat lotsatuta joan naiz hitzordua ezarria genuen tokira. Lehen hitza "barkatu horren temosoia izateagatik", baina berehala lasaitu naiz ikusita Nerea zein atsegina den eta ni baino mila bider temosoagoa eta burugogorragoa dela. Nola, bestela, lortuko zuen hiru egun jarraian korrika ibiltzea mendian barna, egun eta gauz, maldan goiti eta behiti, naturaz isilean gozatzen?



**Baina mundua ezagutzeko aukera ere bada, ez?**

Niri gustatzen zaidana da mendia eta paisaiak ezagutzeta. Lasterketarekin hori jada badaukat. Lasterketa bukatu ondoren, ez daukat toki horietan beste ezer egiteko. Hiriak ez zaizkit horrenbeste interesatzen. Naturarekin gozatzen dut.

**Bazter gogoangarririk?**

Hainbeste toki zoragarri ezagutu dudanez! Filipinetan, adibidez, toki ederrak eta oso bizimodu zoriontsua ikusi dut herri txikietan. "Ume gaixoak", pentsa dezakezu, agian gauza gutxi dutelako jateko edo etxeak edozein moduz eginda daudelako, baina ikusten duzu zoriontsuak direla, eta horrek asko hunkitu ninduen. Japonian korrika egitea polita da eta oso deigarria egin zitzaidan ikustea han jendeak zer grinaz bizi duen kirol hau. Izugarri gustatzen zaie mendian korrika egitea eta oso ongi prestatuta daude. Bazter eder-ederrak daude Patagonian, Reunion Uharteetan, Arabiar Emirerrietako dunetan... Leku bakoitzak du berea. Toki zoragarriak mundu osoan daude eta baita hemen inguruan ere.

**Euskal Herrian mendi lasterketa zaletasunik bada?**

Handia gainera. Baina kirol guztiakin bezala: lasterketak, txirrindularitza... Ez dakit beste pasta batez eginda ote gauden baina hala da.

**Hemen Beasaingo Ehunmilak da lasterketa handiena. Bi aldiz izan zara eta bietan irabazi.**

Bereziki gustukoa dudan proba da eta bihotzean daramat. Tolosa inguruan korritzen da eta hangoak dira gure ama eta aitona-amona, txikitan han ematen nituen opor guztiak. Han korrika egitea eta nire familian pentsatzea oso hunkigarria egiten zait. Nire aitonarekin zerbait berezia sentitu nuen. Hor bertan zegoela

sumatzen nuen. Oso gustura aritu naiz beti eta oso ongi tratatu naute, baina aukeratu behar da eta urtero ezin da toki guztietan egon.

**2012an zeintzuk izan dira zure lorpen handienak?**

Maiatzean Japonian egin nuen Fuji mendiko ultra trail proba, 170 kilometroko lasterketa luzea. Derrigorrez eraman beharreko gauzen artean panda hartzak uxatzeko txilibitu berezi bat zegoen. Esaten zuten han basoan bizi dela eta jenderik sumatuz gero nahiko oldarkor jartzen ahal direla. Hala ere, nik ez nuen horregatik batere beldurrik izan. Eta uztailean Andorra Ultra Trail Vallnord lehiaketako Ronda dels Cims lasterketa luzea eta, esaten dutenez, munduko gogorrena, irabazi nuen. Oso esperientzia polita izan zen. Oso sentsazio onak izan nituen ibilbide osoan. Niretzat bi hauek izan dira garrantzitsuenak.

**Eta etorkizunari begira, 2013an zer egiteko asmoa duzu?**

Otsailaren 2an hasiko naiz Hierro uhartean, 84 kilometroko lasterketa batekin. Gero martxoan Transgrancanaria 119 kilometrokoa, maiatzean zain nago ea gonbidatzen nauten Maurizio Uhartera eta hilabete horretan Madeirara joan nahi dut. Andorra berriro aurten ekainean, abuztuan Le Grain raid des Pirinees eta irailean erokeria bat: Tor des Geants, 330 kilometroko lasterketa puska, Alpeetan egiten dena. Izugarria. Ez dut inoiz egin eta gogo eta errespetu handia diot. Ikusi nahi dut ea nola moldatzen naizen lau egunez korrika. Hori da nire egiazko erronka aurten. Ari natzaio mundu guztiari esaten, baina nik uste dut badela ni neu mentalizatzeko modua. Sponsorrekin hitz egin eta haiek ere esan didate hori ikaragarria dela eta ea ziur ote nagoen. ■



SAGARDOA

# Otordutik harago, bisita gidatuak sagardotegietan

Sagardoa kupelean eta botilan dastatzeaz gainera, sagarrak edari bihurtzeraino egiten duen ohiko bidea ezagutzeko aukera izango dute herritarrek Gipuzkoako sagardotegietan. Izan ere, sagardo esperientziak ekimena abiatu dute hainbat sagardotegik, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen laguntzaz.

| IRATI SARASUA ARABAOLAZA |



Bisita gidatuak egiten dituzte Oiharte sagardotegian. Aralar eta Aizkorriko parkeen artean, paraje bikainean dago Zeraingo baserria.

GIPUZKOAN gaude, Zerain herrian. Irukaketa-gain auzoan, kutsaduratik eta autoen zaratatik urrun, entzuten den hots bakarra txorien kantu goxoa den gune menditsuan dago Oiharte sagardotegia. Bertan Haritz Eguren dugu zain. 1984. urtetik Eguren familiak hartu du bere gain Oiharte; sagardotegiaren historiaren berri emango digu Haritzek, eta gaur egun sagardoa nola egiten duten kontatuko digu.

Baserria berritzen lan egin ostean, duela hiru urte ireki zituzten Oiharte sagardotegiko ateak, eta aurten proiektu berri bati ekin diote: bisita gidatuei. Uztailean hasi ziren bisitak egiten, urtarriletik urrira bitartean egiten dituzte, hots, sagardotegia irekia dagoen sasoian. Ohikoena sagardotegietara txotx garaian joatea dela nabarmendu dute, baina ez lukeela hala izan behar. Sagardoak zapore onena urtearen erdialdetik amaierara



bitartean izaten duela adierazi digu Haritz Egurennek.

Sagastietan hasiko da sagardoaren munduan zehar egingo dugun bidaia. Sagarra nola biltzen den azaltzen dio Egurennek bisitariari, zein barietate dauden eta haiek zein motarekin egiten duten lan. Sagarra jada bilduta dutenez, garai honetan bisita egitera joaten den herritarrak ez du horiek jasotzeko aukera izango. Baina bilduta egongo ez balitz, herritarrak bilduko lituzke hainbat, sagardotegietan egiten den lanaren berri lehenengo pertsona izateko. Sagarra hartzen den lekura eraman gaituzte jarraian, eta gero sagardoa makinarian sartzen den gunera. Handik bodegara bidean Maite etorri zaigu, Haritzen emaztea. Biek egiten dute lan sagardotegian, eta bisiten proiektuari ilusioz ekin diotela azaldu digute. Bideo bat jarri digu Maitek jarraian, Oiharteren historia labur-labur azaldu du ikus-entzunezkoak, eta era berean, familian eta egiten duten lanean murgildu du bisitaria.

Sagardo naturalaz egiten dituzte urteroko 40.000 litroak. Sagardotegi txikia direla nabarmendu dute, baina baita Euskal Herriko tradizioa haiena sentitzen dutela ere. Bi seme-alabak inguratu dira gero, Unai eta Irati txikia. Familia baten gerizpean sortutako sagardotegia dela argi geratu da. Kupelen inguruan dabilta haurrak, haiek ere sagardotegian laguntzen dutela esanaz. Sagardoa dasatzeko aukera eskainita bisita amaitutzat eman dugu. Horrez gain, bisitaren amaieran

**Sagarra nola biltzen den azaltzen dio Egurennek bisitariari eta honek sagar biltzetan laguntzen du. Prozesuaz, sagardotegiaz eta bertako familiaz mintzo den bideoa jartzen diote ondoren. Lau bisita mota eskaintzen dituzte Oiharten.**

gazta eta txistorra atera dizkigute berriketa lasaian giroaz eta inguruneaz gozatu ahal izateko. Baserrian bertan duten nekazal-etxea ere erakutsi digute.

Oiharte sagardotegiak bezala, haien lana erakutsi eta sagardoaren historiaren berri emango dute Astigarragako Petritegi eta Bereziartua sagardotegiak, Irungo Olak, Adunako Aburuzak eta Zabalak, Azpeitiko Añotak, Donostiako Calongek, Hernaniko Iparragirrek eta Aiako Satxotak. “Aspaldi ikusi genuen turismoaren sektorean sartzeko beharra. Azken finean, sagardotegiak betidanik egin diote ekarpena bertako bisitariari eta turismoari”, dio Amaia Zubeldia Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko kideak. Inguruko lurraldeetan halako jarduerak izan duten “harrera bikaina” ikusita ekingo diote Gipuzkoako hamar sagardotegiek bide berriari.

Jendeak txotxarekiko duen interesak piztu zien Gipuzkoako sagardotegiei proiektu berriari ekiteko grina. Txotx garaian, sagardotegietara bertaratzen den jende kopurua txotxaren berezitasunak erakartzen duela argi dute sagardogileek; horregatik, garrantzia eman eta herritarrei sagardotegietan sagardoa lortzeraino egiten den lana erakustea egokia iruditu zitzaion. “Eskaera ikusi genuen jendearen aldetik. Jendeak gustura hartzen du txotxa, eta kanpotik etortzen direnentzat ere oso erakargarria dela ikusi genuen, jendeari oso ohitura deigarria iruditzen zaio”, gaineratu du Zubeldiak.



## Bakoitza berezi

Sagardotegi bakoitzak bere berezitasuna du. Kokapenagatik, lana egiteko eragatik, eta, oinarrian, familia ezberdinek osatzen dutelako. “Sagardotegi bakoitza mundu bat da. Bakoitzak bere balioak ditu. Batek ingurua izango du balore, besteak aldiz bodega izango du erraldoia, besteak antzinako dolarea. Bakoitzak bere berezitasunak ditu”, nabarmendu du Sagardogileen Elkarteak kideak. Beraz, sagardotegi guztiek oinarri bera izango duten arren, bakoitzak bere berezitasunen berri emango du.

Adibide garbia irekiera izango da. Urte osoan zehar sagardotegia irekitzen duten familiek urte osoan eskainiko dituzte bisitak, eta hori egiten ez dutenek berriz, txotx garaian irekiko dute soilik. Talde txiki zein handientzako izango dira bisitak, hori ere sagardotegiek erabakiko dute; batzuek gutxieneko taldeak jarriko dituzte, beste batzuek ez. Bisitak hainbat hizkuntzatan egiteko aukera eskainiko da; normalean, euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez izango dira.

Gainera, sagardotegian egin litekeen bisitez gain, aukera asko eskaintzen dituzte Euskal Herria eta sagardotegien ingurua hobeto ezagutu ahal izateko. Sagardotegi batzuek nekazal-etxe izaera ere badutenez, kanpotik datozenezat sagardotegi horiek ostatua eskainiko dute, baita hainbat museotara joateko aukera ere. Ezkio-Itsasoko Igartubeiti Sagardo Baserrri Museora joatekoa, adibidez. Guztia erabiltzailearen interes eta nahien arabera egiten dute. Sagardotegiaz gain, sagardoarekin lotutako beste hainbat gauza ezagutu nahi dituenak badu hori egiteko beta.

Oiharte sagardotegian, adibidez, era guztietako taldeen zako bisitak antolatzen dituzte. Horregatik, Euskal Herritik kanpo datozen taldeen beharretara moldatzen dira bisitak. Ibilbidean zehar informazioa euskaraz, katalanez, gaztelaniaz eta frantsesez eskaintzen dute. Gainera, Oiharten bertan 2000. urtetik duten nekazal-etxean gaua pasatzeko aukera eskaintzen dute. Sei gelatan hamabi pertsonari ostatua eskaintzeko aukera dute, giro goxo eta lasaian.

Oiharten lau bisita mota eskaintzen dituzte. Aukeretako bat honakoa da: bisita gidatuaz gain, Ordiziako D'elikatuz Interpretazio Zentrotik Igartubeiti Baserrri Museora irteera egitea, bertako XVI. mendeko dolarea ikusteko; edo Idiazabalera irteera, bertako Idiazabal

**Oiharte, Petritegi, Bereziartua, Ola, Aburuza, Zabala, Añota, Calonge, Iparragirre eta Satxota sagardotegiek hartzen dute parte bisita gidatuen ekimenean**

**Astigarragako Petritegi izan zen halako eskaintza egiten lehena. Gaueko bisitak eskaintzen zituen. Egun, haurrentzako tailerrak antolatzen ditu, besteak beste**

Gaztaren Interpretazio Zentroan bisita gidatu egiteko. Ondoren, Ondramuño baserrian, Aranburu familiak gazta nola egiten duen erakusten du.

“Helburua da jendeari erakustea sagardoak Euskal Herrian izan duen garrantzia”, adierazi du Amaia Zubeldiak. Horregatik, sagardotegiak turismora egokitu nahi dituzte, bertako nahiz kanpoko bisitariei ateak zabalduz. Eskaintza bereziak egiten dituzte jada sagardotegiek. Astigarragako Petritegi sagardotegia izan zen halako eskaintza bat egiten lehena. Duela urtebete inguru hasi zen, eta hasieran gaueko bisitak eskaintzen zituen adibidez. Gaur egun, familia osorako turismoa eskaintzen du sagardoari lotuta; haurrentzako tailerrak antolatzen ditu, besteak beste.

## Sagardoaren ibilbidea helburu

“Sagardoaren ibilbidea sortu nahi dugu eta bertan eskaintza ezberdinak egin nahi ditugu”, argitu du Zubeldiak. Jendea Euskal Herrira etortzean harrirtuta geratzen omen da: “Sagardoa badago munduan, baina hemen dugun ezberdintasun nabarmenena txotxa da eta munduan hori egiten dugun bakarrak gara”. Txotxa zer den erakustez gain, sagardoak bere baitan duen historiaren berri eman nahi dute bisita gidatuek. Sagardoa eta sagardogintza euskal kulturaren garrantzitsuak direnez “euskaldunon identitatearen” parte dela azaldu nahi dute.

“Garai batean izan zuen garrantziaz ohartarazi nahi dugu jendea, bai kanpoko eta baita bertakoa ere. Hemen askotan ez baikara ditugun balore eta ondareez jabetzen”. Produktu berria gizarteratzeko asmoz, turismo agentziak jarri da harremanetan Sagardogileen Elkarteak. “Gure helburua ez da

jendea sagardotegira etortzea bakarrik, etortzen denean hemen inguruan gera daitekeela azaldu nahi diogu bisitariari”. Hala, eskualdeko garapen agentziak ari dira lanean. Esaterako, informazio turistiko ematen dute sagardotegietan, eta denda bat ere jarri dute sagardotegi guztietan, produktua salgai izateko.

“Orain, zer gertatuko den ikusi nahi dugu, jendeak zer esaten duen, zer eskatzen duen, eta gu behar horietara egokituko gara”, zehaztu du Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak kideak. 2013 urtea sagardotegietako ateak parez pare zabalik izanda ekin diote, eta hala irautea espero dute.



# Asturiasen ere, turismoaren helduleku

Asturiasen iaz hasi ziren sagardoari lotutako turismo esperientziak egiten. Ekimenari esker, edariarekiko zaletasunak jende asko erakarri duela nabarmendu dute turismo gastronomikoko kideek.

EUSKAL HERRIAN ekin berri dioten bidea landuta dute jada Asturiasen. Ikusi zuten ohiko turismoaz gain, lurraldea berezi egiten duten bestelako ezaugarrien bitartez turismoa egiteko abantaila ere bazutela, eta hori indartu egin behar zutela. Eskaintza turistiko zabala dute bertako sagardoari lotuta. 2009. urtean turismo esperientziak egitasmoa jarri zuten abian. Haragia edo gaztarekin batera, iaztik zuzenean sagardoarekin zerikusia duen eskaintza gehitu zuten ekimenean. Harrera bikaina izan duela nabarmendu dute Asturiasko Turismo Gastronomikoko kideek.

Euskal Herrian bezala, sagardoa nola egiten duten erakusten diote bisitariari, sagastietan hasten den prozesu guztia azalduz, eta sagardoaren ezaugarri guztien berri emanaz. Horrez gain, bide berriak ere zabaldu dituzte: besteen artean,

**Nava herriko Sagardoaren Museoak edariaren ibilbide historikoa erakusten du. Antzina erabiltzen zituzten makinak dituzte ikusgai**

sagardoarekin lan egiten duten bainuetxeak zabaldu dituzte, sagardoarekin masajeak emateko, eta jendea sagardo artean erlaxatzeko asmoz. Asturiasko Turismo Gastronomikoko zuzendari Hector Perezen esanetan, “jendea Asturiasko turismoaz hitz egitean sagardoa burura etortzea gustatuko litzaiguke”.

Arkeologoek diote Erromatarren aurretik Asturiasen jada sagardoa edaten zutela herritarrek, eta hori sustatu nahi dute gaur egun. Idatzi historikoetan jaiegun eta ospakizunetan sagardoa edaten zela idatzita dagoela ziurtatu dute, baita herriko kulturaren parte zela ere. Perezek azaldu-takoaren arabera, ohitura hori ez da aldatu eta gaur egun, sagardoak Asturiasko herritarren egunerokotasunaren parte izaten jarraitzen du. Lagunartean edo etxean sagardo botila beti presente dagoela berretsi digu.

## Sagar handia

Munduan sagardo gehien egiten duen lurraldea da Asturias. Sagardoaren ibilbidea izugarri handia da bertan. Horregatik, ibilbidea hiru zatitan banatu dute. Bisitariaren interesera egokiatzeko moldatzeko aukera dute hartara. Lehenengo, Oscos-Eo-n hasten da, eta Gijonen amaitu; bigarrenak sagardoaren eskualdea zeharkatzen du; eta azkenak Nalon



Ibarra eta Asturiasko ekialdea ezagutzeko parada eskaintzen du. Hainbeste sagardu ekoiztearen ondorioz, "Sagar handia" izenez da ezaguna Gijon hiria mundu osoan. Hori guztia kontutan izanda, ekin zioten Gijonen Sagardoaren ibilbidea turismo esperientzia berria egiteari. Helburu nagusia da bertako herritarrek eta kanpokoek sagardoaren munda ezagutzea.

Sagardoarekin zerikusia duten produktu asko eskaintzen dituzte Gijongo Sagardoaren ibilbidean. Sagardoak historia luzea du hirian, eta ezinezkoa da hiritik pasa eta sagardoa ez dastatzea, bertan dagoen "giro ederrak" bisitaria "berehala" harrapatzen duelako. Uda izaten da Asturiasko sagardoarentzat garai indartsua, baina urria da sagardogileentzat egutegiko hilabete garrantzitsuena, orduan betetzen baita gehien hiria eta orduan egiten baitira jaialdi handienak.

Sagardoaren ibilbidea, esperientzia bereziak bizitzeko sortu zutela adierazi du Perezek. Aukera paregabea iruditzen zaio herritarrek lehenengo pertsonan sagardoa egiteko prozesu guztia ikusteko, eta sagarra biltzeko aukera izateko. Sagardoa edalontzira besoa

**Euskal Herrian bezala, sagardoa nola egiten duten erakusten diote bisitariari, sagastietan hasten den prozesu guztia azalduz eta sagardoa dastatzeko aukera emanez (aurreko orriko argazkian). Sagardo tratamenduak egiten dituzten bainuetxeak ere zabalduta dituzte.**

dituzte bertan ikusgai, eta hala bisitariak denboran atzera egin eta Asturiasen sagarra nola lantzen zen ikusiko dute.

Esperientzia hori guztia bizi ostean, sagardoarekin lotutako dendak ikusteko parada izango du bisitariak. Sagarrarekin eginiko produktuak erosi ahalko ditu beraz. Sagardo sagarrarekin Asturiasen produktu asko egiten dituztela ziurtatu du Sagardoaren Jatorri Izendapenaren gerente Reyes Ceñalek: besteak beste, marmeladak, tartak eta edariak. Talasoponiente Zentroan eman diezaioke aldiz amaiera, sagardo artean etzanda tratamendua eginda.

Sagardoari lotuta, urtean zehar ospakizun ugari dituzte Asturiasen. Uda garaia eta urria izaten dira garai garrantzitsuak. Baina urte guztian eta lurralde osoan daude ekitaldiak. Orain arte ibilbideak izan duen harrerarekin oso gustura daude Asturiasko sagardogileak, egungo krisi ekonomikoak nola eragingo dien pentsatzeak arduratzen dituen arren. Hala ere, bertako kultura sustatu eta indartsu irteko esperantza mantentzen dute. ■



Xapoa

# Bartolo

taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan aukera zabala

Fermin Calbetón, 38  
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279  
[www.casabartoloetxea.com](http://www.casabartoloetxea.com)



DANI BLANCO

**Amaia  
Lasa  
Alegria**



IDAZLEA

## Sabel alokatua

FILOSOFOEN teoriari gainbegiratu botatzen badiegu emakumeez mintzatzen zirenean oso nahastuta ibili zirela ohartuko gara, gizonen izaerari buruz pentsatzen zuten gehienbat eta ez emakumearen izaeraz. Pentsalari horietzat beren berdina beste gizon bat zen.

Horrelako zerbait gertatu zitzaion Aristotelesi —ez dut zalantzan jartzen buru argitsua izan zenik—. Bere garaian biologiaren inguruan ideiarik aurreratuenak izan zituen honek zera kontatzen zigun: andrearen umetokian gizonak zigotoa jartzen zuela, uteroak gaur egungo inkubadora bat lez jokatzen zuela, umetokian bertan umekia garatzen zela haur izan eta jaio arte.

Badirudi, XXI. mendean horrelako zerbait uste duen jendea badagoela oraindik ere, uste horren adierazleak sabel alokatuak ditugu. Egungo gizartean murgildurik gauden norabiderik gabeko merkatu erraldoi honetan emazteen sabelak alokatzen dira. Horiek azokako edozein produktu balira bezala eskaintza-eskariaren legepean daude.

*Duela hamarkada batzuk mugimendu feministek ernalkuntza modu hauen aurrean etenaldi bat eskatu genuen, andrearen sabela laborategi bihurtu ez zedin, baina dirupean mugitzen diren zientzialariek jaramonik egin gabe aurrera jarraitu zuten*

Hasiera batean, 1975. urtean, Amerikako Estatu Batuetan (AEB) andreak beren sabelak eskaintzen hasi zirenean, egoera ez zen hain gordina eta askok pentsa zezaketan antzua ziren bikoteei laguntzen zirela diru ordainean truke.

Orain sabel alokatzea milioiak sortzen dituen industria da. *In vitro* ernalkuntza prozesuak sendagileak, sendagaiak, anestesia... eskatzen ditu. Emaztea ez da lehenengoan haurdun geratzen. Sabelaren alokairua ordaintzen da, ahalik eta merkean noski, legeak irakurtzen dakiten abokatuak eta bitartekariak tarteko, guzti hau

agentzia espezializatu batzuekin harremanetan jarri ondoren burutzen baita.

Ernalkuntza mota hauetan egoera bat baino gehiago aurki dezakegu: “Ama eramaileen” kasuan emazteari umetokian bere gorputzetik kanpo sortutako zigotoa ezartzen diote. “Ama ordezkariak” obulua eta uteroa jartzen ditu, aitak aldiz espermatozoidea. Hirugarren kasu bat ere badago, bikotearen bi partaideak antzua direnean, orduan beste norbaitzuen obulua eta espermatozoidea erosi beharko dituzte.

Sabelaren jabea diru ordaina jasotzen hasten da bihotzaren lehen taupadak entzutean, gero hilero sendagileek baieztaetzen dute umekia aurrera doan ala ez. Zer gertatzen da umeki horretan malformazioen bat aurkitzen badute? Abortatu egingo du? Umekia hiltzen bada? Berriro hasi beharko da? AEBetako ernalkuntzak garestiak suertatu dira, gaur egun sabel merkeagoen bila Indiara, Perura... joaten dira, emazte txiro gehiago dagoen herrietara. Nora bestela?

Ez nabil ni moralista edo inoren epaile izateko asmoz, arazo horren aurrean hausnarketa egiteko behararekin baizik. Duela hamarkada batzuk mugimendu feministek ernalkuntza modu hauen aurrean etenaldi bat eskatu genuen, andrearen sabela laborategi bihurtu ez zedin, baina dirupean mugitzen diren zientzialariek jaramonik egin gabe aurrera jarraitu zuten. Guztiz kezagarria da gainera, kontratuetan eskatzen den isiltasun klausulak guztia ilunpean uzten du baitu. Ezin dugu esan emakumearen eta zigotoaren artean ez dagoenik loturarik, umeki bihurtu dadin emakumeak bederatzi hilabetez zilbor-hestearen bitartez arnasa, janaria, berotasuna, odola... ematen dizkio. Kontuan izanik sabela behin baino gehiagotan alokatu daitekeela, zer gertatzen da emazte horien baitan?

Galdera asko erantzunik gabeko merkatu horretan. Era askean jokatzen dugunean bakoitzak daki zer egin behar duen. Negozioa, dirua, irabaziak tartean sartzen direnean egoerak ez dira hain argiak. ■



# ZUMETAren lan-grafiko originala

## ARGIArentzat egina

*Jose Luis Zumeta egileak eskuz sinatutakoa*



Lehen ~~160~~€

Orain!

**99**€

- Edizio limitatua
- Testura bereziko paper naturalean egina
- 500x400 mm.

Iñaki Barcena Hinojal

PARTE HARTUZ / UPV-EHU ♦



INIGO AZKONA

## Demokrazia +

KONTSIGNA xume hori, gauden krisi sakonetik irteteko bide edota errezeta egokitzat sumatzen dut. Demokrazia ez da gobernariak aukeratzeko partiduen sistema anitza soilik. Baina ezaugarri hori ez da huskeria, garrantzi handikoa baita munduko edozein lekutan jendeak nork agintzen duen aukeratzea. Dena den, demokrazia ez da liberalismoaren sinonimoa. Demokrazia liberal honen bertsio posible bat da, egun indartsuena, jakina.

Demokrazia liberalak, berez, herritar ugariren haserrea eta egoneza sortu ditu eta horiek aukera arriskutsu bati bidea ematen diote, boterearen erabilera autoritarioari, demokrazia alboratuz. Herri askotan, degenerazio antidemokratikoa- ren urratsak ari dira txalotzen, horregatik gizarte aske eta igualitarioagoa nahi dugunok, eredu politiko demokratikoa- goak defendatu beharrean gaude, autoritarismoari aurre eginez.

Francoren garaiko eskoletan, “demokrazia organiko” batean bizi ginela irakatsi ziguten. Familia, udalerría, sindikatua eta mugimendu nazionalaren “organo” sendotzen finkaturik. Stalin, Mao edo Horneckerek ere, euren erregimenak “herri demokraziak” izendatu zituzten. Eta zoritxarrez, jende asko dago munduan sistema antidemokratiko eta bertikaletara itzultzeko gogoz, kontsumo material nahikorik ziurtatzen badiete. Hor dago koska eta arriskua!

*Demokrazia ez da gobernariak aukeratzeko partiduen sistema anitza soilik. Baina garrantzi handikoa da munduko edozein lekutan jendeak nork agintzen duen aukeratzea*

W. Churchillek zioenez, demokrazia gobernu sistema txarren artean hobereña da. Nire aburuz, zerbait gehiago da. Demokrazia gizarte harremanak ulertzeko modua da, eta arazo politikoen konponbidea izan daiteke. Norbanakoen bizimodua da, baita taldeena ere, non eskuzabaltasunaren, askatasunaren eta berdintasunaren

defentsarekin batera, aniztasunaren eta gutxiengoaren eskubideak bermatzen diren, parte-hartzea eta gatazken konponbide baketsuak babesteaz batera.

Chantal Mouffe-k dioenez, demokraziaren funtsa, ezarritako botereerikiko sumisioaren logikaren errefusapean datza, nahiz eta botere legalak eta gehiengoak izan, autoritateerikiko tentsionamendu iraunkorrean datza. Printzipioz, edozeinek, alkateak zein zientifikoak, liderrak edo apaizak ez du inongo eskubiderik arauak jartzeko eta besteak gobernatzen saiatzeko. Gobernariaren legimititatea, antagonista politikoen arteko lehia justuan irabazten da.

Eta inork ez, ez Estatuak ez partiduak, ezta mugimendu sozialek ere, ez dute arrazoirik *a priori*. Arrazoi demokratikoa argudioen kontraste librean eskuratzen da, gizartean eta iritzi publikoan posizio gehiengoak lortzen. Horregatik, demokrazia faltsukeria da gardentasunik eta herritarren parte-hartzerik gabe. ■



DANI BLANCO



Edu Zelaieta



IDAZLEA

## Lehen gezurra

ATARITIK irteten den bakoitzean, lehen urratsa egin baino lehen, bi aldeetara begiratzen du beti; eta gero gora, zerura. Txikitant hala egiten ikasi omen zuen. Umetan hartzen diren ohiturak direla dio orain, akaso praktikan balio handirik ez dutenak: eurria egin behar baldin badu, berdin egingo du, gora begiratu ala ez.

Etxetik abiatu eta hamar minutu geroago urteko lehen gezur nabarmena esan diotelako sentsazioa du, kalean aspaldiko lagun batekin topo egindakoan: “Zuriñek harremana uztea erabaki zian, baina, tira, burua altxatzen hasia nauk jada. Makurrena pasatua diat”.

Makurrena oraindik pasatzeko duela bistan da. Haatik, errukiz-edo jokatze alde, (auto)engainua onartu dio begitartearen keinu herabe batez, isilik. Aspaldiko lagunak gezurretik nahi duela egia osatu antzeman du. Aise samar.

Urteko lehen asteetan desioak eta errealitateak nahaska ibili ohi zaizkigu, iraganaren balantzeak eta geroaren aurreikuspenak. Okerrena urtearen bigarren zatirako pasatua izango dela adierazi du Raxoik. Aurpegira bota dioten urteko lehen gezur- raren meritua ere ez du bigarren honek. ■





**Gorka Bereziartua**

◆ ARGIAKO KAZETARIA

## Kultura luxu bihurtu da egunkarietan

LITERATURARI eskainitako orrialdeak gutxitzea erabaki du Suediako *Svenska Dagbladet* egunkariak eta kultura saila “bizi estiloer” eskainitako atal bihurtzea –hau da, orrialde horiek modaz, etxea dekoratzeko aholkuz eta bidaiatzeko gomendioz betetzea–.

Erabakiak Lars Lönnroth literatur kritikari eta orain langabetuaren haserrea eragin du, “Kultura luxu bihurtu da” salatu du, bere ustez esparru intelektualean urte osoko merkealdiak zabaldu baitituzte egunkarietako zuzendariak (frantsesez eta gaztelaniaz irakur daiteke artikulua Presseurop.eu webgunean).

Kontuak gutxi du berritik: “2000. urtearen inguruan hasi zen orrialde kulturalen benetako gainbehera eta nagusitzen joan zen gero, gutxi gorabehera *modus operandi* berdina erabiliz, egunkari handi guztietan, irakurleak papereko egunkarien harpidetzak eteten hasi zirenean, Interneten doan irakurtzeko”. Suedian bezain

hotz daude kontuak tropikal izateari aspaldi utzi zion Euskal Herrian; hartu egunkaria, edozein, eta esan non dagoen kultura saila, hasieran, erdian, amaieran; zenbat orrialde dituen; eta nolako edukiak. Zenbat analisi, eztabaida, kritika, hitz batean, sakontasun. Zenbat propaganda, arteen aitziko kontu, hutsalergia.

Fribolitatearen aldeko hautu horrek arriskuak ere badituela ohartarazi du Lönnrothek artikulua bukaeran: “Burgesia eskolatua publiko fidela izan da orain arte eta harpidetzak eteten hasi da. (...) Unibertsitate giroko irakurle zorrotzek ere, aldizkari intelektualagoetara joko dute”.

Ez dakit hala izango ote den. Dakidana da, geroz eta gutxiago interesatzen zaizkidala egunkarietako kultura orrialdeak eta aldiz, geroz eta gehiago jotzen dudala kritika, iritzia eta analisisa eskaintzen didaten argitalpen eta webgunetara. ■



Lars Lönnroth literatur kritikaria eta orain langabetua.

## BERTSO BERRIAK

### Bandera espanyolari jarriak



DANI BLANCO

**Jokin Sorozabal**



**Doinua:** Esne saltzailearena.

Hamaika ikusteko sortu omen gara (bis): bandera espanyola udaletxetara. Harridura ote da edo hotz-ikara? Zertarako bandera balkoiean para? Espanol bat bakarrik herrian ez bada? (bis)

Bandera bat ez bada herriak jasoa (bis) bere onarpenean dago arazoa antzeztu nahi duzue España osoa trapu txiki batentzat zer konpromisoa! Lotsaz ajatuko da bandera gaixoa (bis).

Ez hasi saltsa bila kontu hau hartuta (bis) “*en lugar preferente*” jarriko dugu-ta: Zer moduz elizako *pararraio* punta? Tximista sartzen bada ez da gure kulpa. Su hartzen baldin badu San Pedrori multa (bis). ■





JOSU SANTESTEBAN

Angel Erro

◆ IDAZLEA

## Epitafioa

ARREBA eta biok hilerrira joan gara, aita gabe eta, ondorioz, otoitz egin behar izan ez dugunez eta lorerik ekarri ez dugunez, ez dakigu zer erritori jarraitu. Arrebari esan diot, hiltzen naizenean, ez dudala toki fisiko bat nahi, eta saihetsi ezingo balu, lorontzirik gabekoa behintzat. Arrebak uste du garrantzitsua dela erreferentzia fisiko bat edukitzea, nora jo izan dezaten norberaz gogoratzeko. Nik erantzun diot hitzezko hondakinak besterik ez nukeela utzi nahi. Berak ez dit ulertu eta hilarrian zer grabatu erabaki ote dudan galdetu dit.

Twitterreko bere kontuan Ana I. Morales kexatzen zen *Idazleei galdezka* liburuan idazleen biografiaren neurrian alde handiak zeudelako. Bakoitzak berea idatziko zuen. Ez zait egiteko zailagorik bururutzen. Twitterren biografiarako tarte lapidarioan ere bere buruaz zerbait idaztera ausartzen direnak miresten ditut. Irudipena baitut, puntu hau nola konpondu, sorkuntzaren arazo berdina dakarrela. Topikotik ihesi nola esan. Bertsolerro batek adina eragiten dit honek larrimina. “Nire lagun-en laguna eta batez ere euskalduna”, “*De paso por el mundo*”. Holako idazkunei ez diet egia-irizpiderik aplikatzen, irizpide estetikoak baizik. Literaturari bezala.

Gezurriaren paradoxa ezaguna da (“esaldi hau gezurrezkoa da” edo “gizon batek dio beti esaten duela gezurra, orduan gezurretan ari da?”). Hilartitzarena ere paradoxikoa da. Hilobian idatzitakoa, eta hilobia bera, literaturaren ikurra da. Bertan lehen pertsona fikzio bat da, aditzaren aldia ere bai. Ingelesak ezintasun hau begien bistara ekartzen digu, nik dakidala, inoiz erabili ez den epitafio posible honetan: *Here lies one who always told the truth*. Hots, “hemen datza egia beti esan zuen bat”, edo, ingelesetik nola itzultzen duzun, “hemen gezurra esaten du egia beti esan zuen batek”. Hemen datza paradoxa bat.

Hemen natza ni, hitzotan. Mallarmék gutun batean dio: “Hildakoek bere alde dute hobi bat, geure begiez ikus dezakeguna, non otoitz egin baitezakegun”. Hobi gotor bat, eta barruan isiltasun zikoitza eta gau itzelezkoa, besterik ez. “*Un sépulcre solide où git tout ce qui nuit, / et l'avare silence et la massive nuit*”. Mallarmék, hala ere, esan zuen poeta bakar-tu ohi dela bere hilobia zizelatzeko, idazteko. Hildakoa gogora ekarriz haren hutsa ez besterik adierazten dugu. Izanetik izenera eta naizenetik zenera dagoen hutsune mitifikatzailea datza lur edo hitzen azpian.

1991. urtean, Côte-d’Azurreko herri batean, Marchal andrea hilda aurkitu zuten, odol-  
lez idatzita bere epitafioa: *Omar m’a tuer*. Omar lorazaina akusatatu eta kondenatu zuten.

Orain gutxi kasua berririki dute, probak berraztertuko dituzte. Lorazainaren abokatuek beti defendatu dute akats gramatikal hori (*Omar m’a tuée* beharko bailuke) pentsaezina dela Marchal andrearengan. Ez dut uste alegatu dutenik inork ezin duela bere epitafioa idatzi.

Hamleten aitaren mamuak “*remember me!*” eskatzen dio Hamlet-i. Teoria zahar baten arabera, Shakespearek lan honetan nahi izan zuen Hamnet bere semea (Hamnet Shakespeare, 1585-1596) ehortzi. William antzezleak taula gainean “Hamlet, zure aitaren izpiritua naiz” zioenean, bere seme galduarekin bat egingo luke (enpirikoki gabe, poetikoki; egiaz gabe, alegiaz), paperak trukatu zituzten, aita hilda eta semea bizirik. Shakespearek eta bere semeak elkarri eskatzen diote elkar gogoratzeko betiereko begizta batean eta biak “oroitu nitaz” horretan bizi dira betiko.

Horrelako zerbait azaldu diot arrebari. ■



Antton Olariaga




**Larrun** 172  
www.argia.com/larrun



## **Josep Fontana**

HISTORIALARIA

**Eraldaketa soziala, kapitalismoaren inperioa,  
katalanismoa, militantzia... Zer egin?**



**Datorren  
astean**

# «Gure zuzenekoak pieza bakarreko estraperlo poetiko-musikalak dira»

Mugaldekoak lagun-taldeak Beran du topalekua, nahiz eta urteko sasoi luzea kanpoan pasatzen duten, publikoarekin partekatzeke kontakizun bila. Bidairik luzeena izan den honetan batu dituzten ipuin, poema eta kantetan oinarrituta *Begiak lekuko* (Gaztelupeko Hotsak) CD-liburua osatu dute. Oraingoan ere AEBetako folk doinuak dira nagusi, baina lurralde asko daude islatuta.

| IKER BARANDIARAN |

Sei bat urte eman dituzue isilik. Mugak itxi dizkizute? Zertan aritu zarete?

Egia erran behar bada, lau urte izan dira isilik joan direnak, 2008tik 2012ra hain zuzen. Izan ere, aitzineko diskoa 2006an atera zen arren, urte eta erdiz aritu ginen lana aurkezten. Gero, bakoitzak bere kontuak jorratu ditu: familia, lana, bertze proiektu batzuk... Duela hiru urte berriz elkartu ginen orain aurkezten hasiak garen lana prestatzen haste-ko. Gainera, kide berri bat daukagu gure artean: Mattin.

Nolakoa izan da bildu dituzuen kanten eta tes-tuen bilaketa?

Arlo musikalarri dagokionez, Raul eta Beñardo arduratu dira batez ere. Arlo literarioan, berriz, Edu aritu da espedizio-buru. Nolanahi ere, hainbat eta hainbat aldiz egon izan gara elkarrekin proiektua koordinatzeko. Taldearen funtzionamendu demokratikoak mar-txa moteldu du behin baino gehiagotan. Bertzalde, kanpoko Euskal Herrira ekartzeko lanetan laguntzaile zenbait izan ditugu, zubiak behar bezala eraikitzeko.

Zer dute egile hauek guztiak elkarrekin?

Guk hautatutako egile gehienek musika eta literatura uztartu izan dituzte euren ibilbi-dean. Idazle hutsen kasuan, aldiz, munduko hainbat kolore eta testigantza jaso nahi izan ditugu, kanpoko bidaian ikusitakoa eta ikasi-takoa, etxean eta etxekoen ondoan gogoratzeko asmoz.

Nor izan duzue gogoan lan hau egin duzue-nean?

Baliteke lan honek jatorrizko bekatu bat izate-a: geure gustuetatik abiatzeak lehen-lehenik geure bihotz-buruengan pentsatu dugula salatzen ahal du. Dena dena, folk musika anitza eta literatura maite dituen edonor izaten ahal da gure entzule, irakurle, ikusle. Baina ohartzen hasiak gara 30 urtetik goitikoen artean harrera hobia dugula oraingoz!

“Geure gustuetatik abiatzeak lehen-lehenik geure bihotz-buruengan pentsatu dugula salatzen ahal du. Dena den, folk musika anitza eta literatura maite dituen edonor izaten ahal da gure entzule, irakurle, ikusle”

“Poema eta musika kontrabandistak dira Mugaldekoak”. Han eta hemen lapurtzen dituzue jende artean zabaltzeko. Baina zer jasotzen duzue trukean? Ahaleginak merezi du?

Nork erran du halakorik? Guk ez dugu fitsik ere ebatsi eta! Hartu, maileguan utzi, erreska-te kulturala gozatu, bai, baina ebatsi gabe, aizu! Trukean zer jasoko dugun erreparatu gabe ere merezi du apustuak, gure irudiko: lanak zenbait momentutan kezka eman badi-gu ere, ikastea eta ongi pasatzea lortu dugu batez ere. Baita inguratzen den jendearekin gustuak, kezak, zalantzak, irriak eta galderak partekatzea ere. Besterik eska al zitekeen?



**‘Gutxi da gehiago’ leloa muturrera eraman duzue instrumentazioan?**

Hiru musikariren artean banatu dira tresna guztiak, eta jotzen dakizkigun guztiak baliatu ditugu, beti ere, gero zuzenean diskoko giro bera eskaintzeko asmoz. Geure musika-ahalmenen eta esku kopuruaren arabera oreka eta emaitza lortu ditugu. Horrela, folkaren oinarri biluzia indartzen saiatu gara.

**“Inork ez ditu soka guztien muturrak (...) eta honek interesgarri egiten du mundu zalantzi hau”. Inprobisazioa eta patua dira zuen motibazioak?**

Ez zaigu pesimismoa interesatzen, deus ere egiterik ez dagoela behin eta berriz elkarri oroitarazteko diskurtsoak ez ditugu maite. Hortaz, mundua zalantzia –eta latza eta ankerra eta alu-pitua– izanagatik ere, egunerokoa bizitzea interesgarria da. Ezinbertzean. Ez dugu bertze erremediorik, ez eta bertzelako salbaziorik ere: egunerokoan dago giltza.

**Zer bilatzen du zuen begiradak?**

Egunerokoa bertze modu batez bizitzea. Hatsa nahi eta behar dugu. Hartara, aise hobeki hartzen da arnasa kontu zehetan alimaleetan baino. Paradoxikoa badirudi ere, egunerokoak eskaintzen dituen zirrikituaren arnasbide anitz daude. Bilatu behar dira. Eta aurkitu!

**Mugaldekoak:**  
**Edu Zelaieta, Raúl García Etxeberria, Beñardo Goietxe eta Mattin Sorzabalbere.**  
**Azken hau (eskuinean gorritz), taldera heldu berria.**

**Mugaldekoak ohituta daude gizakirik gabe, kantua besterik ez dutela lagun?**

Nazim Hikmet poeta turkiarrak lagundu gaitu kontu honetan, berak poema batean zioen bezala, kantuak ez baitu sekula engainatzen: beti fidel, beti lagun.

**“Gauza serioa da umorea”, diozue.**

Horregatik egiten dugun apenas irri (bereziki nork bere buruari). Guk umorea maite dugu. Kantuetan, testuetan eta zuzeneko emanaldietan umorea dago. Umorea behar-beharrezkoa da. Horregatik da hain serioa afera. Denon artean egunero antzezten dugun teatro bezain serioa, baiki.

**“Ez zaigu pesimismoa interesatzen, deus ere egiterik ez dagoela behin eta berriz elkarri oroitarazteko diskurtsoak ez ditugu maite”**

**“Azaroa”, “Maiatza”. Mugaldekoek ezinbestez egiten diete beha urtaroei?**

Urtaroei so egiteak denboraren gaineko ikuspegia ematen du: denboraren iragana eta errepikatzen diren bizitza-zikloak, adibidez. Sasoiak irakurtzen jakiteak bizitza irakurtzen jakiten lagun dezake, nolabait.

## ERDIKO KAIERA • MUGALDEKOAK

“Erantzun gabeko galderek atsekabetuta abandonatu egiten gaituzte”. Baina nora doaz?

Lehenago diskoan ere bidaide izan genuen Wislawa Szymborskak galdera zerrenda proposatu digu oraingoan. Galderak egitea da poesiak omen duen zeregin behinenetako bat. Galderak egiteko lantegian treba daiteke norbera, begirada egunero trebatzen ahal den neurri berean. Berriki itzali zaigun poeta poloniar honek galderak eta soak bikain uztartzen zituelako egin nahi izan diogu omenaldi xumea, bere poema bat euskaratuz eta musikaz girotuz.

Zuek egindako interpretazio eta moldaketek gain, kanta eta hitz originalak ere ekarri dituzue diskora. Munduko artistak ezagutzeko gonbitea?

Munduko hainbat artista ezagutzeko gonbita eginagatik ere, munduan barrena ikusitakoa etxera ekarri eta geure egunerokoan txertatu nahi izan dugu, bidaiak utzitakoak ingurukoekin partekatuz.

Nolakoak dira zuen zuzenekoak?

Hitz batez errateko, atipikoak: hainbat giro, kultura eta aldarre uztartzen dituzten emanaldiak dira, oinarrian musika eta literatura estilo diferenteak biltzen dituztenak, antzerkiari muzin egin gabe. Izan ere, 80-85 minutuko iraupena duten zuzeneko hauetan, maiatzeko egun



horietako batean bezala, denetik gerta daiteke: eraunsi zakarrak, eguzki leunak... Gurea ez da, beraz, ez errezitaldi, ez kontzertu, pieza bakarreko estraperlo poetiko-musikala baizik. ■

## EGIZUHARPIDETZA EGIOZUHARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 145 € / Ipar Euskal Herrian 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonoa

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 • harpidetza@argia.com

Jaso lekuan  
kobratu  
SEILORIK EZ

**argia**

1-FD POSTA KUTXA  
20160 LASARTE-ORIA  
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA  
Balmien zkoa. 17352  
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

ZELU LASARTEA  
MUGA ERREKIBITZ

# Dantza garaikideak batzen gaitu

Bilboko La Fundicion aretoak eta Miarritzeko Malandain Baletak 2011n asmatutako ekimena da Begirada Gurutzatuak. Elkar trukerako programa honi esker Hego Euskal Herriko bi dantzarik Miarritzen egingo dute dantza, eta Ipar Euskal Herriko talderen batek, Bilbon. Dantzarien arteko harremanak sendotzea, esperientziak partekatzea eta erakustoki publiko berriak bilatzea da helburua.

| MYRIAM GARZIA |

KORRONTEA SORTU nahi da, harantz eta honantz, bi norabideetara, dantzariek erakustokiak izan ditzaten, sortzaileek elkarrekin bildu eta esperientziak parteka ditzaten; teknikak eta lan-prozesuak ezagutu ditzaten. Halaxe azaldu digu La Fundicion aretoko arduradun Laura Etxebarriak. Miarritzeko Malandain Baleteko Carine Labordek antzeko ezaugarriak nabarmendu dizkigu: “Hastapenetik izan dugu garapen koreografikoan diharduten dantzarien sarea sortzeko eta bultzatzeko xedea.

Aurten Olatz de Andresen *Privolva* eta Leire Ituarteren *Aleph* dantza emanaldiak eskainiko dituzte Miarritzen, konpainia aski ezagunak duen ikerketa gelan hain zuzen, otsailaren 27an eta 28an. Emanaldiez gain, entsegu irekiak ikusteko parada izango da, eta Miarritzeko Kontserbatorioko eta Paueko Dantza Institutuko ikasleek euren esperientziez jardungo dute elkarrekin. Gaël Domenguerrek –Miarritzeko Baletako pedagogo, koreografo eta dantzaria– hautatu ditu dantzariek eta Miarritzera eramango diren piezak. La Fundicioneko kideak aipatu digunez, “aurten aukeratutako dantzarik biak mundu ezberdinetatik datoz, baina zientzia fikzioaren zale dira eta kutsu hori erakusten dute biek ala biek”.



**Magifique.**  
Miarritzeko  
Malandain Baleta.

Laborderen hitzetan, “Olatz de Andresen idazketa koreografiko eta espaziala arras interesgarria da, garaiok kolokan jartzen dituelako. Kulturen arteko aldeak ere agerian uzten ditu. Leire Iruartek, berriz, *Aleph* mitoaren inguruko bere ikuspegia emango digu. Bere idazketa minimalistak hip-hop dantzan du sustraia. Proposamen futurista da, eta umoretsua”.

Laura Etxebarriaren ustetan, aukera paregabea da, erakusketa zirkuituak erabat murriztu baitira, eta gero eta zailagoa da

lanak zabaltzea. “Bestalde –dio Etxebarriak– profesionalek ere kontaktouk egiten dituzte, eta etorkizunerako atea zabaltzen dira”.

### Dantzarien lan-baldintzak eztabaidagai

Begirada Gurutzatuak programaren bigarren edizio honek dantzarien lan-baldintzak jarriko ditu mahai-gainean, Miarritzen egingo den hitzaldian. Batzuen eta besteen artean dagoen aldea handia da. “Frantziako legepean

diharduen dantzariak langile-estatutu zehatza du eta horri esker, lanik ez duen garaietan diru-laguntza jasotzeko eskubidea du”, azaldu digu Carine Labordek. Estatu espainiarrean, aldiz, dantzariak beste lanbide bati heldu behar izaten dio bizitzeko, jarduera artistikoak ez baitio aski ematen. Nolabait esanda, Bidasoatik alde baterako dantzariak lan-egoera normalizatuagoa du Bidasoatik beste aldekoak baino. ■

Leire Ituarte, Begirada Gurutzatuak programarako dantzari hautatua

## «Antzokietako programatzaileen irizpideak zaharkituta daude»

**Nola sartu zinen dantza garaikidearen munduan? Nolakoa izan zen lehen kontaktua?**

Haurra nintzela dantza klasikoa ikasten hasi nintzen. Zenbait urteren buruan aspertu egin nintzen eta dantza garaikideari heltzea erabaki nuen. Bilboko La Fundicion aretoan izan nuen lehen kontaktua, Luque Taguaren eskutik, hain zuzen.

**Zer iruditu zaizu Miarritzeko Baletak egindako gonbidapena?**

Berri ona izan da, eta arte eszenikoetan momentua oso latza dela kontutan hartuta, are hobea. Miarritzeko proiektua oso interesgarria iruditzen zait, aukera ezin hobea nire lana Ipar Euskal Herrian aurkezteko, eta hortik, merkatu frantsesa ezagutzen hasteko. Emanaldiak lortzea nahiko zaila egiten da.

**2006tik dantzan, zer nolako garapena izan duzu sortzaile bezala? Bat etorri da dantza garaikidearen garapenarekin?**

Nire garapena geldoa izan da, ez naizelako dantzara soilik dedikatu. Baina jarraitutako ibilbidea nahiko koherentea da, eta batez ere zintzoa. Dantzatik bizitzeko premiarik izan ez dudalako, ez naiz sekula behartuta murgildu sormen prozesu batean. Zerbait adierazteko premia izan dudanean egin dut.

**Sortzaile zaren neurrian, nola bizi duzu lan-estatutu finkorik ez izatea? Nola eragiten dio honek zuen lanari?**

Testuinguru horretara moldatzea besterik ez daukagu. Horrek erabat baldintzatzen du



norberaren eta taldekideen egonkortasuna, baita lan egiteko modua eta baliabideak ere. Ezkutuko ekonomia sustatzen du.

**Dantza konpainia handirik ez dago Euskal Herrian. Proiektu puntualen inguruan biltzen zarete dantzariok. Hori ona da?**

Ez dakit. Dagoena dago. Egoera hori sektorearen errealitate eskasa islatzen duen sintoma besterik ez da. Konpainia handiak sustatzeko eta mantentzeko baliabideak falta dira.

**Ez zara dantzatik bizi. Irakasle zara EHU.**

Zorionez, dantzatik bizitzea ez da inoiz nire helburua izan. Jarrera horrek askatasun handia eman dit sormen prozesu batean murgiltzeko erabakia hartzerako orduan.

**Nola ikusten duzu Euskal Herrian dantza garaikidearen egoera?**

Hego Euskal Herrian beti izan da latza egoera, eta orain, krisi orokor honetan, are gehiago. Nire lanak gehiago zabaldu dira Espainiako Estatuan Euskal Herrian baino. Orain arteko nire ibilbidean eskaini ditudan emanaldi gehienak Euskal Herritik kanpo izan dira. Salbuespenik ere bada, BAD jaialdia esaterako, baina salbuespenak salbuespen, bertako antzokietako programatzaileen irizpideak zaharkituta gelditu dira.

Programatzaileak eta publikoa sentsibilizatzeko lan handiagoa egin beharko litzateke eta instituzioek bestelako planteamenduak landu beharko litzukete, kudeaketarako baliabideak erabat aldatu. ■

Olatz de Andres, Miarritzerako dantzari hautatua

## «Lan berriak sortzen dira, baina horiek mugitzea da zailena»

### Nola hasi zinen honetan?

Txikitan hasi nintzen, Donostian, dantza klasikoan eta sormenezkoan, bietan. Gero utzi egin nuen, baina denboraldi baten ostean dantzarako grina berreskuratu eta kontzienteki heldu nion, erabat murgiltzeko asmoz, eta lanbidez hartzeko helburuz.

### Zer da *Privolva*?

Nire azken lana da, 2011ko BAD jaialdian estreinatu nuen. Antzezpenak zientzia fikzioa du oinarritzat eta JL Godard zinegilearen *Alphaville* filmaren zatirik esanguratsuena, ardatz. Filmak etorkizun distopikoa erakusten du. Botere teknologikoa nagusitzearen ondorioz, gizatasunarekin eta emozioekin zerikusia duten hitzak debekatu egin dira eta esanahia galdu dute. Botere gorenak kontrolatzen ditu gorputzak, baina era berean gorputzok hauskorak eta moldagarriak dira. Ekintzak egitura zirkularra du. Gorputzek ezin dute bertatik atera.

### Dantzaterapeuta ere bazara. Zer da hori?

Dantza eta mugimendua xede terapeutikoz baliatzen dira, arazo fisiko edo psikologikoko dituztenekin bereziki, baina denentzat da ona. Mugimenduak gure jarrera eta egoera emozionalean eragin zuzena du, informazio iturri zuzena eta erreala baita. Norbere burua ezagutzeko, pertsonaren garapen osorako tresna ezin hobea da terapia hau.

### 2003tik egiten duzu dantza. Aldatu al da dantza garaikidearen pertzepzioa Euskal Herrian?

Hemen, dantza garaikidearen historia laburra da. Egun sortzaile independenteak dira nagusi. Konpainia handien egitura mantentzea



gero eta zailagoa da. Alde bate-tik, baliabideak eskasak direlako, baina bestetik, teknologia berriek eremu berriak sortzen dituztelako. Gabeziak, betiko legez, lan berrien zabalkundea eta zirkuiturik eza ditugu. Lan berriak sortzen dira baina gero horiek mugitzea zaila da.

### Zeintzuk dira arazo larrienak?

Euskal Herrian formazioerako aukera eskasa da. Atzerrira atera behar da formazio horren bila, edo zure kasa konpondu bestela, eskola pribatuetan ikastaroak, tailerrak edota klaseak hartuta. Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzak ematen baditu ere, kulturako aurrekontua gero eta murriztagoa da, eta dantzari eskaintzen zaiona, are murriztagoa. Sortzaileen lan-baldintzak hobetzeko kopuruak handitu behar dira, baina krisia tar-teko, ez dakigu zer gertatuko den laguntza publiko horiekin. Sormena eta ekoizpena bir-planteatu beharko dira dantza munduan.

### Publiko zehatzik badu?


Ohiturarik ez dago dantza garaikidea ikustera joateko. Sentsibilizazio lan handia egin beharra dago, zubi berriak eraiki behar dira publiko berria sortzeko, eta hori hezkuntzatik egin behar da ezinbestean. Eskolan, dantzak eta mugimenduak duten garrantzia jabetutakoan ikusiko da arlo artistikoak ere balioa duela.

Zirkuitua eskasa da, eta batez ere kanpoko taldeak edota antzokia betetzea bermatuko duten taldeak besterik ez dira programatzen. Koreografo berriak kontuan hartuko dituen programazioa behar dugu. ■



Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**

Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



**Helduen literatura** | POESIA

*Sinplistik*  
Hedoi Etxarte  
Susa, 2012


## Desfasea

ABADE ETXEETAKO EUSKAL POESIA SOZIALA gainditzen duen suzko bonba hau irakurri ondoren sartzen zaizu halako bake sentazio bat ez dena suminduena, ez dena militantearena, intimoagoa dena eta, era berean, guztiz artegagarria: Alain Urrutiaren azaleko txakurraren amorrua zer da, gurea? Amorrur horri eusten ari zaion eskua zer da, gurea?

Eta esan dugu jadanik badaezpadako hitz hori: soziala. Jakizue, ordea, Hedoi Etxarteren liburu hau ez dela soziala bakarrik, espressionisten eran sentimentala ere badela. Eta ez da soilik sentimentala, ze esperimendu hotz bat ere bada, errepikapenekin, elipsiarekin, tipografiarekin jokatzeko duena. *Suzko Lilia* (Susa, 2008) ez hain efektiboan barruntatzen zitzaion indar sismikoa neurrikerik gabe eta eder atera da beraz orain kanpora. Liburu honetan defendatzen da egia eta salatzen da gezurra, eta kontzeptu erlatibo horien alde batean zein bestean kokatzen da idazlea, erdibideetan babestu barik. Giotto edo Dalí bezala, Etxartek ere badu bere *Azken Afaria* (*Gaurko afaria*, 48. or.), adeitsu eta politikoki zuzena izan gura ez duena, eta ohartarazten duena ETaren jomugan egon aurretik hipokrita zena gero ere hipokrita dela. Tabuekin eta halako egia enpirikoekin eraiki du Etxartek mundu bat itsu batek soilik ikusten ez duena eta mundutik kanporatuek osatzen dutena, alienatuena, mileuristena, langabeena eta mamuena, orain iraultzaile eta orain erdipurdiko garen burges txiki-ona. Uzkiak nazka eta era berean atsegin morbosoa ematen digunon mundua da.

Iraultza artistiko ooren desmasiekin idazten du Hedoi atentzioa deitzeko, pentsatzera bultzatzeko eta amorrarazteko. Sarkasmoa txarto ulerturik, agian irudituko zaio bati baino gehiagori gaineratik jartzen den handi bat dela, baina niri iruditu zait maisuki erabilia Brechtek zerabilen “distantzia efektuaren” antzeko ironia neurtu bat, gizartea zehatzago behatu, kritikatu, eta dialektikoki aurkezteko aukera ematen diona: “Zelula bakoi-tzean haragitzen ditugu/ abangoardia eta erretagoardia:/ koadroak gara, liderrak eta ardiak;/ dominatzaileak eta dominatuak”. Errealitate berri baterako lexiko berri bat dakar *Sinplistik* honek, erreferentzia eta kultismoz bete baina erradikala eta argia. Gogorra da, zauriak egingo dizkizu, haserretuko zara esaten dituen gauze-kin, hunkituko zaitu hainbeste tristezia eta biolentziak. Zure erreazioaren bila dabilen poesia da. Artea da. ■

Igor Estankona



*Made in Galiza*  
Sechu Sende  
Txalaparta, 2012.  
Itzultzailea: Txerra  
Rodriguez.

## Metaforak, hizkuntza gatazkak bistaratzeko

SECHU SENDE SOZIOLINGUISTA ezagutu nuen lehendabizi, galego teknikarrien udako ikastaroen harira elkarrizketa egin niolako ARGUARAKO. Idazlea baino, galego eragilea nuen buruan, eta hala irakurri dut 2007an argia ikusi zuen *Made in Galiza*. Aitor dezadan astoa kartolekin dabilen bezala irakurri dudala liburua, batik bat hizkuntza gatazkarekin zerikusia duten narratioetan begiak iltzatuta. Egunerokoan arreta horri jartzen diodalako.

Irribarre etengabeaz irakurri ditut, goxo kontatuak daudelako. Baina euskaldunak, euskal hiztun izateko eguneroko gaitz beharreko hesiez ohartua bada bederen, ezin zozo aurpegiz leitu metaforaz eta fantasiaz jositako ipuinok. Narrazio goxo-gordinak direla esango nuke, eta gogora datorkidan ipuina *Hitzik gabeko lekua* da, egia esan, gordinetik goxotik baino gehiago duena. Kurdistango Varba herrian ez dute hitz egiten ez idazten, haien hizkuntza eta hiztunak jazarriak izan direlako. Haiena erabiltzea debekatu dieteenez, besterenik ez dute ahoratuko.

Ez dut uste parekotasun soziolinguistikoa egiten hasteko narrazioak direnik, hizkuntza gatazka sorburu duten ipuin asko galizieraren egoerarekin daude lotuta eta ezin dira euskarara bere horretan ekarri. Euskal hiztun kontzientziatuak, soziolinguistika hizpide dela, literaturaz gozatzeko aukera izango du. Hizkuntza gatazkaz kontzientziarik ez duenari, agian, bihotzera ailegatuko zaizkio ipuinok. Bihotzetik burura eta burutik mihirako bidea egitea ederra litzateke. ■



Onintza Irureta Azkune





Makulu Ken  
Makulu Ken  
Autoekoizpena, 2012.

## Makulurik gabe dantzan

ERRITMO BEROAK, melodia alaiak eta doinu dantzagarriak. Makulu Ken taldearen kantuak oso gustura entzuten ditut. Gorputzaren atalak oharkabean mugitzen hasten zaizkit, eta irribarrez nagoela konturatzen naiz. Kantuek alaitasuna transmititzen baitute, poza, bizitzeko gogoia.

Taldekideek beren lehen diskoan oso ondo landu dute dena: doinuak, erritmoak, melodiak, musika tresnak, ahotsak, hitzak, grabazioa, moldaketak nahiz ekoizpena, eta soinu indartsua, zuzena, zehatza, trinkoa eta garbia gauzatu dute. Ozen jarri eta dantza egiteko aproposa.

Afrobeat, funk, reggae eta rockaren eraginak suma daitezke beren kantuetan, euskal sustraiak ere antzematen ahal dira, baina horiez guztiez ederki baliatuta beren doinua eraiki dute, eta Makulu Kenen kantuak erraz ezagutzen ahal dira.

Lasarte-Oriakoa (Gipuzkoa) da taldea. Txus (bateria), Patxus (baxua), Xuber (perkusiona), Xa2makulu (gitarra eta ahotsa), Eider (ahotsa) eta Itxaso (ahotsa) dira taldekideak. Makulu Kenekin hasi aurretik, Potrojourra, Brigantnya, Yennin, Iratxo, Underneed, Tabu Tabar, Herrera eta bere kronopioak, Nahiak, Nil eta Musker Oker taldeetan jo dute.



GAZTEZULU

Diskoaren grabaziorako, musikari ugariaren laguntza izan dute, eta denak primeran aritu dira beren zereginetan: Enekora (kora), Xabi Beldarrain (surdoa), Josu Gabellanes (pandero brasildarra), Arkaitz eta Mikel –Oreka TX– (txalaparta), Igor Gartzia (saxofoia), Iñigo Isasti (tronboia), Gorka Seguro

(tronpeta), Asier Suberbiola (biolina), Josu Etxeberria –Oreindik– (ahotsa), Xanti Noriega (gitarra) eta Joan Berenguer (teklatuak). Lagun alaiak, ameslariak eta txantxazaleak dira Makulu Ken taldeko kideak, baina kantuetan kritika, salaketa eta aldarria ere egiten dute, modu zuzenean edo ironiaz.

‘Makulu Ken’, taldearen izena izan ez ezik, filosofia bat ere bada: makulurik gabe hitz egitea, komunikatzea, maitatzea... “Makulu mentalak kendu behar ditugu”, Makulu Ken taldeko kideek beren disko aurkezpenean esan zuten bezala.

Hori egingo dugu: makuluak eta lotsak alde batera utziko ditugu, eta Makulu Kenekin dantza egiten hasiko gara, gorputza mugitzen, irribarrea ahotik kendu gabe. ■

Joxi Ubeda



## Fruitu gorria

ESTANKONAREN bakarkako bigarren diskoa dugu *Fruitua*. Disko apala da, aurrekoa baino linealagoa, talkarik gabekoa nahi bada, kontrasterik falta ez duen arren. Autoan, bide lasairen bat hartu eta aise egiten dira kilometroak beronen doinuek bozgorailuetatik lagun egiten dutela.

Lan biluzia da, zentzurik onean. Batetik, hiru musikari besterik ez direlako taldean (Jimmi Arrabit bateria-jotzailea, Itxaso



Fruitua.  
Estankona.  
Baga-biga, 2012.

Etxebeste baxu-jotzailea eta Estankona bera, gitarra-jotzaile eta kantari).

Grabaketak ez du hirukote natural honen baliabideen gaineko apain-garririk erakusten. Bestetik, barrura begiratzen duelako sortzean; bere baitatik atera dituelako hitzetan esandakoak, eta zenbait tonutan esan ere, surrealismo kutsuz nahiz gordinki.


Amorrua ezagun zaio batzuetan, sentiberatasuna beste hainbatetan, introspektiban aurkitzen den emozio ugari, elkar ukituz bezala, soka berean baletoz bezala, segidan, jauzirik gabeko trantsizioan. “Abesterakoan gehien gus-tatzen zaidana, begiak itxi, edo begirada aurrera zuzendu nora-bait, eta abesti horren jatorri diren bizipenen irudiak nire barruan dantzatzen ikustea da”, azaldu zuen Estankonak berak, diskoaren aurkezpeneko orrian. ■

G.U.G.



### Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1					■										
2								■							
3				■											
4							■								
5			■							■					
6						■									
7	■								■						
8					■										



NANDO QUINTANA-CC BY SA

### Sudokuak

Erraza

4	9	1	7		6			8
		5		4		9		
		6	9	3		4		
2				9	7			1
	3							5
	5		2	1				9
		4		7	5	1		
		2		8		3		
7			6		9	5	8	4

Zaila

2	8			5	1			
7	6		8					
9							8	7
3	5					1		
				4				
		7					3	2
6	2							3
					6		7	9
			4	3			1	8

#### Ezker-eskuin:

1. Ukan. Fruiturik ematen ez duena. 2. Ate, sarrera. Abereak uxatzeko. 3. Jardun, eragon. **Argazkiko musika taldea**. 4. Likido-masa txikiak. Nafarroako Ikastolen Elkarte. 5. Samarioaren sinboloa. Gaixobera, gaixoti. Baso. 6. Baia luzanga. Olio z igurtzi. 7. Oles eginez. Kausari dagokiona. 8. Soinu-ikur. Hotsak ozenago entzuteko erabiltzen den tresna.

#### Goitik behera:

1. Buztandun. 2. Zaborra. 3. Azkar, korrika. Egiptoko mitologian, Ilargiaren jainkoa. 4. Niobioaren ikurra. Teilatuak egiteko erabiltzen den pieza. 5. Igartzen duena. 6. Adar moztu. Antimonioa. 7. Guztiz, sano. Kokondoaren fruitua. 8. Ez modu batera ez bestera. 9. ...-..., nongori-nongori, nongo alkate zara zu? 10. ... Alberdi, euskal idazle eta bertsolaria. Nafarroako herria. 11. Begirunerik gabe jokutzen duena. 12. Helburua, xedea. 13. Ekin, abiatu. 14. Arlo, sail. 15. Baliorik gabe.

## Kike Amonarrizen umorea



### Tximinokeria

Kepa Altonagak Kirri-kirri ezizenez sinatutako txiste hau aurkitu zuen *Eskualduna* astekariaren 1905eko otsailaren 17ko alean, eta guk irakurtzea merezi duen *Darwin geurean* liburutik hartu diogu.



– Aita, egia dea chiminotik heldu girela?  
– Egia bera; frogatua duk orai gure lehen aita chimino sortu zela eta gero, emeki emeki, hobe-

tuz eta abilduz gizona, hein hundertarainotu dela.

– Beraz aita, zu ni baino chiminoago zira?

– Zer diok, kichkil alahena! –eta pamp!, paso batez aurthikitzen du aitak bere semea–. Ikhusak orai zoin giren chiminoago!

– Eta bizkitartean, ez othe zen haurraren errana solasak berak ekharria?

## Soluzioak

7	1	3	6	2	9	5	8	4
5	6	2	1	8	4	3	9	7
8	4	3	7	5	1	2	6	9
6	5	7	2	1	3	8	4	9
1	3	9	4	6	8	7	5	2
2	4	8	5	9	7	6	1	3
8	2	6	9	3	1	4	7	5
3	7	5	8	4	2	9	6	1
4	9	1	7	5	6	2	3	8

Erraza

5	7	6	9	4	3	2	6	1	8
1	3	4	5	8	6	2	7	9	
6	2	8	9	1	7	4	5	3	
4	9	7	1	6	5	8	3	2	
8	1	2	3	4	9	7	6	5	
3	5	6	2	7	8	1	9	4	
9	4	1	6	2	3	5	8	7	
7	6	5	8	9	4	3	2	1	
2	8	3	7	5	1	9	4	6	

Zaila

**Ezker-eskuin:** 1. Izan, Anzu, 2. Sarbide, Ux, 3. Art, Garbu, 4. Tanak, Nic, 5. Sm, Entor, Oihan, 6. Datl, Ollozortu, 7. Oleska, Kausal, 8. Nora, Bozgorailu.  
**Goitik behera:** 1. Isatsdun, 2. Zarama, 3. Artin, Tor, 4. Nb, Tella, 5. Igarle, 6. Adak, Sh, 7. Ner, Koko, 8. Inohaz, 9. Zubiri, 10. Uxug, Oro, 11. Ozar, 12. Ina, 13. Hasl, 14. Ayal, 15. Nulu.



## Ostarte urdinak

MIKEL URDANGARINEK bere azken lana aurkeztu zuen Bilboko Arriaga Antzokian, urtarrilaren 6an: *Azula* (autoekoizpena, 2012). Errege egunean, beraz, eta arratsaldeko 7etan jarri zuen hitzordua. Minutu batzuk lehenago, jendea biltzen hasi zen antzokiaren atarian, Zornotzako abeslariak zaletu andana baitu Bizkaia aldean, eta argi eta garbi ikusi zen hori zuzenekoan. Publikoaren harrera ezin hobea izan zen.

Lanaren funtsa azaldu zuen has-teko eta behin: “Honantz nentorrela Gasteizetik, hodei gris ilunen artean, ostarte bat zabaldu da, azul intentsoa, lagundu nauena hiruzpalau minutuz, hain zuzen abesti batek irauten duena. Disko honetan, hori izan da bilatu nahi izan dudana, hain zuzen ere, gristasun honetan, azula bilatzea, hortan saiatzea”. *Azula* lan intimoa da, oso barnekoa eta oso gertukoa, Mikel Urdangarinek berak esanda. “Saiatu naiz, hala ere, idazterakoan distantzia hartzen, nigandik urruntzen, berekoikerian ez erortzen, istorioak, nolabait, unibertsalizatzen”. Eta horrela sentitu zuen Arriaga antzo-

kiko publikoak ere, aurkezten ari zitzaiena, zerbait gertukoa balitz bezala, denok maite baitugu gristasunetik aldentzea.

Formatu berri batekin ausartu da Mikel Urdangarín disko honetan, bere ohiko banda baztertu du eta soinu berrien bila aritu da. Bi lagun ditu bidaide: Koldo Uriarte, pianoan eta sinteetan, eta Angel Celada, baterian. Bi lagun eta lankide, grabazioan zein zuzeneko formatoan. Izan ere, aski antzekoak dira diskoa eta zuzenekoak. Hirukote honek asteburu batean eta estudioan zuzenean joz grabatu baitzuen diskoa. Zintzotasun ariketa egin nahi izan omen zuten, “estudioan zuzenean grabatzea askoz ere egiaiagoa, freskoagoa eta politagoa baita”. Hirurek soinu berria sortzea helburu.

Mikel F. Krutzagak egin ditu soinu teknikari lanak.

### Abesti berriak protagonista

Kontzertuan, nagusiki, disko berriaren abestiak izan ziren protagonistak, eta giro berezia sortu zuten, intimoa, hauskorra. Tonu horretan etorri ziren: *Azula*, *Euria ari du*,

*Han*, *Azken dantza*, *Ene mamu maitea*, *Musa*, *Oporton*, *Andikona 1936...*

Urdangarinen abesti ezagunek ere izan zuten, ordea, aireratzeko parada: *Anek idatzi dit zutaz*, *Hau ez da amodiozko kanta*, *Badira biru aste*, *Letra hauek*, *Egun argian*, edo *Munduari begiratzeko modu bat*. Publikoaren txalo zaparradak, oihuak eta txistuak, berriro agerrazazi zuten abeslaria. Hiruzpalau abesti jo zituen, berak bakarrik, besteak beste hauetxek: *Arrasto umela*, *Bazkalosteko kafea*, *Oihana* eta *Non geratzen den denbora*.

Aurrerantzean hainbat aukera izango da zrnotzarraren lan berriaz gozatzeko, zenbait hiritan, zenbait antzokitan taularatuko baitu *Azula*. Besteak beste, Baztanen, otsailaren 23an; Getarian, martxoaren lehenan; Miarritzen, martxoaren 2an, Donostiako Victoria Eugeniean, martxoaren 23an; Barakaldon, maiatzaren 17an eta Gasteizeko Principal antzokian, maiatzaren 18an. ■

Myriam Garzia



## Ouya, sistema irekiko kotsola

AURTENGO MAIATZEAN Ouya izeneko kotsola merkaturatzeko asmoa dute. Internautek finantzaturako makina izango da, eta jolasak saretik doan eskuratzea egongo da.

2012ko uztailean, egitasmoen finantzaziorako Kickstarter gunean, Julie Uhrman Ouyaren sortzaileak ideia aurkeztu eta 950.000 dolar behar zituztela adierazi zuen. 24 ordu eskasetan 2,5 milioi bildu zituzten. Azkenean, 8,5 milioi guztira.

Android sisteman arituko den kotsola Rubik kuboaren tamainakoa izango da. Ouya zerbitzarietara konektatuko da eta emaitza etxeko telebis-

tako monitorean ikusiko da, *streaming* bidezko bideoa izango bailitzan; beraz, Interneteko konexio azkarra beharko da sistema ongi aritzeko. Jolasak egun PCetan erabiltzen den "Free to Play" motakoak izango dira, hau da, oinarritzko jolasa doakoa izango da eta pertsonaia edo ezaugarri erantsiak baino ez dira ordainduko.

Kotsola jada salgai dago eta Internet bidez erreserba daiteke 99 dolar ordainduz. ■



## 2012an gora egin dute karbono dioxido emisioek

East Anglia (Erresuma Batua) Unibertsitateko ikerlarien arabera, 2012an 35.600 milioi tona karbono dioxido igorri ziren atmosferara, aurreko urtean baino %2,6 gehiago. Txina, AEB, EB eta India dira zerrendaburu, AEBetan eta EBn isurketek behera egin bazuten ere.

[ttiki.com/46122](http://ttiki.com/46122)

(Gaztelaniaz)

## Itsas mailaren igoera bi metrora iritsi daiteke 2100. urterako

Aurrekoa irakurrita, ez da harritzekoa beste hau: NOAA estatubatuar erakundeko ikerlariak egindako azterketaren arabera, 2100. urterako itsas maila hogeizentimetro eta bi metro bitartean igoko da. Oraindik bi faktore ezin dira zehaztu: itsasoetako uren berokuntza eta izotz geruzen urtzea.


[ttiki.com/46123](http://ttiki.com/46123)

(Gaztelaniaz)

## CERNeKo azeleragailua atsedean hartzen

2010ETIK ORAIN GUTXI ARTE CERNeKo azeleragailuan bilioika talka gertatu direla argitara eman da *Nature* aldizkarian. Hala ere, 5.000 milioi baino ez dira erregistratu. Talka horietatik 60 petaokteto, hau da, 60.000 bilioi datu lortu dute, 80.000 ordenagailu eramangarritako diskoak betetzeko adina.

Gogoratu beharra dugu iazko uztailaren 4an CERNeK iragarri zuela Higgsen bosoiarekin bateragarria zen partikula topatu zuela. Baina baieztapenerako itxaron beharko da, une honetan azeleragailua geldirik baitago, eta hala egongo da 2015era arte, mantenu-lanak egin behar dituzte eta. ■



JULIAN HERZOG-CC BY SA



## Garuneko edemen arrastoek irau egiten dute

Gotingako (Alemania) Unibertsitatean, Michael Knauth ikerlariak zuzendutako lantaldeak hainbat urtez aztertu ditu edemak jasan izan dituzten mendizaleen garunak, eta orain arte uste zenaren aurka, frogatu dute haien arrastoak ez direla denborekin desagertzen.

[ttiki.com/46124](http://ttiki.com/46124)

(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



**iametza**  
interaktiboa  
[www.iametza.com](http://www.iametza.com)  
T.943 37 67 16

## Irakurleen zizare jendea

LANDARE KONTUEN txoko hone-tako nire kontularitza baldarreen zortziehungarrena idazten ari naiz. Eta hemezortzi urte eskaseko asteroko jardun hau zuri zor dizut. Zuriak ez diren eskerrak zuri. Irratiko 28 urteotako milaka saioetan entzulearekin piztu den harreman zuzena sotilagoa da hemen, meheagoa. Ba al da, non da irakurlea? Mizpiraren inguruko azkenekoei ekarpenak egin dizkieten irakurleak zu zuek denen eredu: Ibon, JR eta Martin, hau bizipoza eman didazuena. Lilura hutsa ez zara behintzat eta...

Irudipenen eta ametsen jokoetatik... Zer irudipen eta zer amets, egiazko maisu zarete. Balizko irakurlearekin harremana sotilagoa, baina irakurlearekin zorrotza. Mizpira, *Mespilus germanica*, lekuko. Santi Onaindia karmeldar ohorezko euskaltzainak bere *Euskaldunak eta osasuna* liburuan mizpira “bizioai alde-eragiteko be” ona dela dioela jaso nuen. Eta nire motzean, apaiz batek zionez, bizioa sexuarekin lotu nuen. Hor etorri zaizkit, ordea, irakurleak bizioa (“bixixoak”) hesteetako zizarea ere badela esanez. Eta arrazoi izango dutela iruditzen zait. Mizpira kozkorra, beraz, hesteetako zizareak botatzeko ona da.



WWW.KRAUTEREY.COM

*Artemisia abrotanum*. Hau da bizio-belar jatorra, askorentzat.

Eta irakurle iragarle igarleek abiatutakotik, libratzerakoan zizare horiek ere libratzeko egokiak diren landareak bilatzeari ekin diot. Bizio-belarra, zizare-belarra... azaltzen dira bai batean eta bestean. Gehientzat *Artemisia abrotanum* da bizio-belar jatorra (zizare-belarra eta artamixa ere deitzen zaio). Zizareak kaleratzeko bezala, haizeak botatzeko eta beherakoa mozteko ona omen. Bada zizare garbitze lan horri nola edo hala lotu zaion beste landare ugari ere: mota-belarra (*Tanacetum vulgare*), otsababa emea, mingaizto-belarra eta lupu-belarra deitutakoa (*Helleborus viridis*), erruda (*Ruta* sp.), ezker-aihera (*Humulus*

*lupulus*), iratze arra (*Dryopteris filix-mas*), intxaur beltza (*Juglans nigra*)...

Intsektuak uxatzen dituzten landare horiek mikatzak dira, gustu txarreko izerdia edo kirats jasanezina dute. Badira pozoi puxka bat duten zizareen aurkako beste batzuk ere: sabia (*Chenopodium* sp.), tabakoa (*Nicotiana tabacum*)... Azken hori ahoan txikitu eta irentsi.

Baratxuria (*Allium sativum*) ere oso ona omen da. Baratxuri begi bat txikitu eta koilarakada pare bat urekin nahastuta hartu, egunero. Zizare jendea uxatuko duzu, baita bestelakoa ere. ■



### Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba, zure jarraitzaile bihurtu naiz, hainbeste dakizu! Eskari batekin natorkizu. Etxetik oso hurbil hiru madariondo ditugu, uste dut bi konferentzia direla eta bestea blankilla, perilla edo makatza, ez dakit ondo, baina goiz heltzen da eta gozo-gozoa da. Zaharrak dira eta urte batzuetan, iaz adibidez, ez dute askorik ema-

ten. Ez dut ipurditik moztu nahi, baina madariak jan bai, eta berriak ere ipiniko nituzke holakoxeak. Zer proposatzen didazu? Eskerrik asko zure laguntzagatik eta hurrengo bat arte.

**Errose Aurrekoetxea (Igorre)**

Kaixo Errose. Izen horrekin neu ere zeure jarraitzaile bihurtzeko arriskua! Madarien itzalera joanda, zaharrak badira bizia luzatzeko: adar iharrak moztu eta jaten eman. Simaurra erruz eman eta lur buztintsua bada

baita kaera ere. Berriak eskuratzeko muintegi fidagarri batekin harremanetan jarri eta etxean dituzun arbolentzako maiztasunak maiztasunak edo udare basatian (*Pyrus pyraeaster*) edo irasagarrean (*Cydonia oblonga*) txertatzeko eskatu.

Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua [landareak@argia.com](mailto:landareak@argia.com) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

# Ez zegoen eta ez dago dieta mirakulutsurik

LONDRES, XIX. MENDE HASIERA. Lord Byron poeta ingelesak ozpinaren dieta egitea erabaki zuen, erromantikoen artean hain modakoa zen itxura argal, zurbil, gaixotia lortzeko.

Cambridgeko Unibertsitateko medikuntzaren historiako irakasle Louise Foxcroftek *Calories & Corsets* (2012) lanean dioenez, gizakiak antzinara hasi ziren dieta egiten –“dieta” hitza grekeratik dator–, baina orduan dieten helburua osasun mental nahiz fisikoari mesede egitea zen. XIX. mendean helburu estetikoak nagusitu zen, eta ahalik eta ahalgin txikiena eginda eta ahalik eta azkarren kiloak galtzeko dieta mirakulutsuak perretxikoak bailiran ugaltu ziren. Lord Byronen dieta egunerokoz edatean eta ozpinez bustitako elikagaiak jatean zetzan. Gorputza garbitzea zuen helburu, eta baita ederki garbitu ere; dietaren albo ondorio nagusiak oka eta behe-rakoa ziren. Eta, hala ere, ezin dugu garaiko dieta kaltegarrienen zerrendan sartu.

XX. mendearen hasieran tenia zizarea erabiltzen hasi ziren argaltzeko (urte asko geroago, Maria Callas soprano ezagunak metodo hori erabiltzen zuen zurrumurrua zabaldu zen, baina horren frogarik ez dago). Zizare arrautzak piluletan hartzen zituzten. Zizarea hesteetan haztean, elikagaiak xurgatzen hasiko zen, eta horrek, jakina, pisu galera ekarriko zuen, baita beste albo kalte gutxi batzuk ere: beherakoa, meningitisa, ikusmen arazoak, epilepsia, demen-tzia... Gogoan izan teniak bederatzi metro luze izatera irits daitezkeela. Egia da nahi adina argaldu ondoren parasitoen aurkako botikak hartuta senda zitekeela dietagilea, baina sugetzarra botatzeak konplikazioak sor-zitzakeen digestio-aparatuaren.

Artsenikoaren dieta sinpleagoa zen, baina ez osasungarriagoa. Dosi hilgarriak saihestuz ahalik eta artseniko gehien hartzean zetzan. Gainera garaiko “dietista” txerpolariek sarritan ez zieten bezeroei esaten



XIX. mendean nagusitu ziren helburu estetikoak lortzeko dietak. Besteak beste kautxuzko kortsea asmatu zuten pisua galtzeko eta, hala, oihalezko kortsetan sartu ahal izateko.

beren erremedio magikoek artsenikoa zutenik eta, horrenbestez, argaltzeko obsesio handia zutenek pozoi-tzeko arrisku handia zuten.

Kautxua ere erabili izan zuten argaltzeko, baina, zorionez, material toxikoa ez zen sabeleratu behar. XIX. mendearen erdialdean, Charles Goodyearrek, bulkanizazio prozesuaren bidez, asko hobetu zituen kautxuaren propietateak, eta materialaren erabilera asko zabaldu zen. Kautxuzko kortseak eta azpiko galtzak egiten hasi ziren; presioa eragiteaz gain izerdia areagotzen zuten, baina azaleko infekzioak ere bai.

XX. mendearen hasieran, Horace Fletcher estatubatuarrak kiloak galtzeko bide on bat janaria asko mastekatea eta gero ahotik botatzea zela erabaki zuen. Jakiak ahoan txikituta gorputzak behar zituen elikagaiak xurgatuko zituen, eta gainerakoa botatzeak gizentzea saihesten lagunduko zuen. Gaur egun jakina da ondo murtxikatzea osasungarria dela. Baina Fletcherren arabera, tipula, esaterako, 700 aldiz mastekatu behar zen. Haren esanak betez gero, asko jaterik ez zegoen, eta, beraz, haren dietaren sekretua ez zen hain ezkutukoa: gutxi jatea. ■



## Arrastoak Egiptoko animalia baltsamatuak Oiasson

IRUNGO Oiasso Museoan *Egiptoko animalia sakratuak*. Bidaia bat momifikazioaren sekretuetara izenburuko erakusketa ikusgai izango da datorren apirilaren 14a bitartean.

2009tik 2012ra Nafarroako Unibertsitateko lantalde bat egiptoar animalia momiak aztertzen aritu da, Gorka Bastarrika doktorearen gidaritzapean. Antzinako Egiptoko fauna aztertzeaz gain, baltsamatzeko tekniken eta material berri jasotzeko, animalien gorpuen barrenean jarri ohi zituzten baso, makila edo kanaberak ikusteko, datazioa zehazteko, eta antzinako egiptoarrek beren jainko-jainkosei babesa eskatzeko erabiltzen zituzten barne-amuletoen garrantziaz jabetzeko balio izan du ikerlan sakonak.

Lanaren emaitza Oiasson ikus daiteke orain. Erakusketak hamaika animalia momia biltzen ditu –beheko argazkian, horietako bat, egiptoarrentzat sakratua zen katu baltsamatu–, guztiak 2.700 urte baino zaharragoak, baita Egiptoko ehorzte-tradizioari lotutako hainbat amuleto eta bestelako objektu ere. ■



# Gipuzkoako harizti handiena, erreserba izateko zain

Hariztiz eta pagadiz osatutako baso mistoa da Añarbekoa. Egoera oso onean dago eta Aiako Harria Parke Naturalaren kontserbazio balio handienak daude bertan. Biodibertsitatearen galera dela-eta, baso erreserba izendatzea eskatu dute ekologistek eta hainbat erakundek, baina oraindik ez da halakorik egin.

| IURE EIZAGIRRE |

ERRENTERIAKO UDALAK Añarbeko basoari babes handiagoa emateko prozesua duela urte batzuk hasi zuen, 2006an Agenda 21en ingurumenaren eta iraunkortasunaren aldeko ikuspegi orokorreko hainbat neurri hartzea adostu zuenean. 2009an aurrerapausoa eman eta bioaniztasunaren kontserbazioan gorengo mailan dagoen baso erreserba izendatzeko proposamena espresuki osoko bilkuran bozkatu eta aho batez onartu zen. Urteak igaro dira harrezkero, baina izendapena gauzatzeke dago eta oraindik Añarbeko basoak Kontserbazio Aktiboko Eremu izaten jarraitzen

du; baldintza batzuk kontuan hartuz gero, lurren eta basoen esplotazioa baimenduta dago, alegia.

Basoa publikoa da, Errenteriako Udalaren jabetzakoa. Herri lurra, beraz. Baina Natura 2000 Sarean sartuta dauden Gipuzkoako beste 19 eremuetan bezala, Foru Aldundiari dagokio kudeaketa eta Eusko Jaurlaritzari, berriz, planifikazioa. Hala, bi erakundeotako aurreko legegintzaldiko ordezkariak hasieran ez ziren Errenteriako Udalaren proposamenaren aldekoak. Aldundiak beste proposamen bat aurkeztu zuen, Iñaki Azkarate Errenteriako Udaleko Ingurumen teknikariaren esane-

tan, “Gipuzkoako Ehiza Federakuntzaren presiopean”. Erreserba eremua 909,95 hektareatik 600era murriztea proposatu zuen Aldundiak. Izendapenaren sustatzaileek zein eskualdeko ekologista taldeek neurri horren aurka egin zuten.

Aurreko Aldundiaren jarrera izan da erreserba izendapenak oraindik aurrera ez egin izanaren arrazoi nagusietako bat, Azkaraterekin ustez. Baina iazko hauteskundeetan ostean Bildu dago agintean Gipuzkoako Foru Aldundian eta udal zein foru ordezkariak bilerak egiten ari dira, Eusko Jaurlaritzari eskatzeko Aiako Harria aldeko

ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS



Añarbeko urtegia eta basoak Urdaburuko (598 m.) gailurretik; 900 hektarea baso babestea dute helburu ekologistek.



Iñaki Azkarate Errenteriako Udaleko Ingurumen teknikaria, Añarbeko baso erreserbak izango lukeen eremua erakusten planoan.

Natur Baliabideen Antolamendurako Plana aldatzea, erreserba izendatzea ahalbidetuko bailuke horrek. Bide horretan kide berri batekin egin dute topo, izan ere, Donostiako Udalak parkean duen 120 hektareako Errekabeltza pagadia erreserban sartu nahi du.

Sustatzaileek ez dakite zerekin egingo duten topo osatu berri den Eusko Jaurilaritzan, Azkaratek azaldu

duen bezala, besteak beste oraindik ez dutelako Bioaniztasuneko zuzendari nagusirik izendatu. Dena den, udal erabakia izanik eta erreserbaren mugak Hiri Ordenamendurako Planean jasota egonik, baiezkoa besterik ez dute espero. “Antolamendurako Planean erreserba zer den begiratzen badugu, Añarberako definizio zehatza dela ikusiko dugu. Gainera, kontuan hartu behar da Euskal

Autonomia Erkidegoan gutxi direla kontserbazio egoera horretan dauden hariztiak eta baso natural helduak. Desagertzen ari diren Gipuzkoako eta Bizkaiko hariztien oso ordezkarri ona da, handiena”, gaineratu du ingurumen teknikariak. Jaurilaritzaren onespenerekin, hilabete batzuk nahikoa lirerateke 1995ean sortutako Natur Baliabideen Antolamendurako Plana aldatzeko. Horreatik espero dute aurten erreserba izendatzea.

### Hariztiak eta pagadiak berezitasun

Erreserbaren eremua mugatzeko, naturaren kontserbazio irizpideak izan dituzte kontuan –hariztien eta pagadien presentzia, besteak beste—. Aiako Harria Parke Naturaleko kontserbazio balio altuenak omen daude Añarben. “Gipuzkoan jarduera ekonomikoa izan da mendietan mendetan zehar eta basoak oso landuak daude. Añarbeko basoan ere egon da giza jarduera baina aspaldi utzia da, Artikutzan bezala. Ondorioz berreskuratzen joan da. Horrelako baso masa natural jarrai gutxi ditugu hemen inguruan: Bertiz eta Artikutza (Nafarroan) eta Añarbe bera. Hariztiak eta horri lotutako fauna (basakatu, okila, baso-harrapariak...) eta landaredia dira hemengo balio handienak”, azaldu du Azkaratek.

Errenteriako Udalak maila lokalean, baina Europako ingurumen testuinguruan dihardu lanean. Europar Batasunean hariztiak ez daude mehatxatuta, izan ere, oso eremu laua da, eta hariztiak gunela eta baxuetan hedatzen dira, ez menditsuetan. Gipuzkoan, berriz,

## Bisita masiborik ez

BASOA ERRESERBA bihurtzeko egitasmoa Reverse nazioarteko proiektuan sartuta dago, nazioarteko praktika on bezala. Hala ere, sustatzaileek komunikazio kanpaina neurrian egiteko asmoa dute, ez baitute nahi ingurua bisitariz betetzirik. “Ez dugu nahi hau Doñana (Espainia), Gavarnie edo Néouvielle (Frantzia) bezalako izaterik.

Ez dugu nahi erreserbaren ondorioz 30.000 edo 100.000 bisitari etortzerik”, dio Iñaki Azkarate Errenteriako Udaleko ingurumen teknikariak. Gaur egun ere maiztasun eta bisita erregimen txikia duelako omen dago basoa hain kontserbazio egoera olean.

Añarben, Bertiz eta Artikutza dituzte eredu. Lehenengoa habi-

taten eta espezieen kontserbazioan eta bigarrena, berriz, bisiten erregimenean. Urtean behin edo bitan irekitzen zaie Artikutza autoei eta oinezkoen bisitak libreak dira. “Ez ditugu nahi mila auto ilaran edo izugarritzko parkingak, eremua bereziki sentisibla delako”, amaitu du Azkaratek.



egoera alderantzizkoa da: natur kontserbaziorako elementu interesgarriak eremu menditarretan gelditu dira baztertuta, batez ere probintziako hegoaldean, basoen erabilera intentsiboa, industria, azpiegiturak, basogintza eta bestelako giza-jarduerak direla medio.


Bestalde, Gipuzkoako babestutako eremuek ez dute loturarik elkarrekin, adituek proposatutako korridore ekologiko guztiek hausturaren bat baitute, dela honako errepidea dela halako azpiegitura. Ondorioz, naturgune babestuak isolatuta daude eta Europako baso zatiketa-aren mapan puntu beltzen artean kokatu du horrek Gipuzkoa, baita bioaniztasunaren galera tasa handiak dituzten eremuen zerrendetan ere. Bizkaia ez da aparte eta egoera berean dago, intsinis pinuaren hedapenagatik (ondoko irudian).

Datu horiek guztiak kontuan hartuta egin du Errenteriako Udalak Añarbeko basoaren kontserbazio maila igotzeko eskaria. Eremu zabalagoa nahiko lukete baina ezinezkoa da: “900 hektarea oso gutxi da –dio Azkaratek–. Koherentzia eta konektibitate biologikoa bermatzeko, agian 6.000 hektareako eremua beharko litzateke, baina Gipuzkoan ez dugu tamaina horretako basorik. Hogei mendetako jarduera ekonomikoari lotuta egindako habitat eta espezie galera hain da izugarria, horrelako orbanak bakarrik gelditzen zaizkigula”.

Baina zuhaitziak ez dira babestu beharreko bakarrak. Orintxe ari dira Errenteriako habitatetan eta espezieen banaketa ebaluatzen, eta esku artean duten zirriborroaren arabera, 167 espezie ornodun daude udalerrian, 107 babestu beharrekoen artean katalogatuak, horietako gehienak Añarben. Gipuzkoako milaka biztanleri edaten ematen dien ura ere handik dator eta urtegia da kontserbazio balioa duen beste elementua. Erreserbak horren zati bat ere hartuko luke. Erabilera eta jarduera murriztu, eta uraren kalitatea areagotuko luke horrek.

**Oilagorren ehiza debekatuta**

Añarbeko basoa Kontserbazio Aktiboko Eremu den bitartean baimenduta dago bertan ehizatzea.



\* Bizkaia eta Gipuzkoa puntu beltzak dira mapan, errepide eta azpiegiturek bertoko basoak bereizten dituztelako.

Erreserbaren iparraldeko muga litzatekeen eremuan usoa ehizatze-ko postuak daude, eta kontserbazio maila igotzean bere horretan mantenduko dira, erreserbaren eremutik kanpo baitaude. Barruko eremuan, berriz, oilagorren ehiza, eta basurde eta orkatzen uxaldiak egiten dira egun.

Izendapenarekin, oilagorren ehiza debekatuko da. Izan ere, definizioz, biodibertsitatearen kontserbazioa da erreserba izendatutako eremuaren erabilera bakarra. Azkaratek adierazi duenez, jende gutxi ibiltzen da Añarben oilagorrek ehizatzen, eta erreserba izendatzean beste norabait joan beharko dute. “Ez da oilagorren ehizarik egongo eremu horretan, baina Gipuzkoako 200.000 hektareatan eta Aiako Harria Parke Naturaleko 5.000 hektarea baino gehiagotan egongo da”, gehitu du.

Salbuespen gisa, animalien populazioa kontrolatzeko ehiza baimen-

tzen du araudiak. Añarberen kasuan basurdeen eta orkatzen populazioa dira kontrolatzekoak, ez dutelako harraparirik. Azkaratek honela azaldu du: “Kalteak baldin badaude, eta zientifikoki eta tekniko-ki ikusten bada hala dela –ez du balio norbaitek esatea asko dagoela–, uxaldiak egingo dira”.



**LUArkitektoak**  
 hirigintza  
 hirigintza aholkularitza  
 udal planak  
 urbanizazioak  
 periferzioak  
 balorazioak  
 etxebizitza proiektuak  
 birgaitzeak  
 barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña  
 Tel 948 13 26 97  
 lua@luark.com

# Galdua zirudiena nola berreskuratu duten Iruritan

Iruritako egoera aztertu du Paula Kasares soziolinguistak, euskarak Baztango herrian egin duen bidea, karrikan galtzera joatetik biziberritzera. Horretarako, gurean ezohiko ikuspegia baliatu du, hizkuntz sozializazioa.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

Iruritako (Baztan, Nafarroa) kasua aztertzerako datorren artikulua ondu zuen 2011n Paula Kasares ikertzaileak *Euskararen belauneko belauneko jarraipena hizkuntza sozializazioaren paradigmatik* izenburupean. Idazlanak Euskal Soziolinguistika Saria jaso zuen eta han eta hemen hizpide izan dira Kasaresek lan hartan jaulki zituenak.

Hizkuntza ordezkatzeko prozesuak itzulerarik gabea zela ematen zuen Iruritan, baina joan den 40 urtean bertako neskatiko-mutikoak euskaldun hazi dira. Ikertzaileak, beraz, haur horiek euskaldun haz daitezzen gertatu den aldaketa aztertu du, gurean ezohiko den ikuspegi teorikoa baliatuz, erran nahi baita, hizkuntzaren sozializazioa, orain arteko transmisio ereduak —hots, familia bidezkoa—, gainditzen duena. Kasaresek esango duenez, “hizkuntza sozializazioa prozesu holistikoa da, familiara mugatzen ez dena; dinamikoa eta baldintza soziohistorikoei lotua, ez mekanikoa; elkarreragilea, ez norabide bakarrekoa; malgua eta denboran aldakorra, ez monolitikoa”.

Dakigunez, egun, hainbat hiztun komunitatek arazo larria du belauneko belauneko hizkuntza jarraipena ziurtatzea eta, inondik ere, euskarak ere horixe du erronka. Eta, orduan, zer gertatu da Iruritan, duela 40 urte beste ikertzaile batek, Sánchez Carrión Txepetxek aurrei-

kusi zuena gauzatu ez dadin? Eta zioen Txepetxek: “30 urtetik gorako bizilagunek oraindik badakite euskaraz, baina gehiago erabiltzen dute gaztelania. Gazteagoetan, baten batek ulertuko du, baina ez dira euskaraz mintzo. Etxean haurrei ez diete erakusten. Badira euskaldun huts direnak, oso adin handikoak...”. Eta ondoko iruritarren artean atzerapenak ez zuela itzulerarik izango zioen. Kasaresen ikerketak bestelako errealitate bat erakutsi du: “40 urteren buruan, aldiz, euskararen bilakaera ez da joan Txepetxek iragarri zuen galbideetik... Txepetxek Iruritako familiek haurrei euskaraz egiten ez zietela ikusi eta euskararen desagertzea iragarri zuen. Hark atzemandako hizkuntza egoerak mintzaira ordezkapena gertatzen ari zela pentsatzeko bide ematen zuten alderdi anitz zeuden: hizkuntza erabilera sozialean gaztelaniak ordura artio euskaraz zuen lekua hartu izana —karrikan ez ezik, baita etxeetan ere—, gazteen artean eus-

kara ez erabiltzea, gaztelaniak egoera formaletako eta prestigiodunetako komunikazio funtzioak hartuak izatea eta euskaraz egiten zuten hiztunak gutxiesten ohikoa izatea...“Eta, batik bat, guraso elebidunek seme-alabei euskaraz ez egitea”. Horrexek esanarazi bide zion Txepetxi Iruritako euskara ordezkapen prozesuaren azken urratsetan zegoela. Alabaina, eta hemen da errealitatea, lau hamar-kada igaro direnean, euskara bizirik da Iruritan, Kasaresek erakutsi duenez: “Euskaraz, gutxi-asko, aditzen da herrian, euskaraz egiten ohi diete gurasoek haurrei eta euskaraz aritzen dira neska-mutikoak beren artean jostetan”. Joan den 40 urtean euskararen egoera moldatu duten aldaketa handiak gertatu direla aitortuagatik ere —horra hizkuntzaren estatusa, horra euskarazko irakaskuntza—, baina horiekin batera, eta Kasaresi interesgarrien zaiona, “iruritarren belaunaldi bat izan da deliberatu duena bere seme-alabak euskaraz haztea, nahiz eta mintzaira hori guraso horien gehienek lehen hizkuntza ez izan”.

**“1945 inguruan karrikan hazitako haurretan, hamarretik lauk euskaraz ikasi zuen etxean. 1970 aldera sortutakoetan hamarretik batek edo bik baino ez”**

Paula Kasares

**Belauneko belauneko jarraipena, oinarri**

Orain artean nagusitu diren teoria eta usteen arabera, eta euskararen historia soziolinguistikoa askotan nabarmendu den ideia hona aldatuz, hizkuntz komunitateak hautatzen eta erabakitzen



Txepetxek 1970ean zioen euskararen atzerapenak ez zuela itzulerarik izango Iruritan.

duelako hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena. Hiztunen hautua da, beraz. Hizkuntza atxikitzea edo galtzea, ikuspegi soziologikotik eta antropologikotik aztertu izan da, gehienbat. Oro har, familia bidezko transmisio informala, eta irakaskuntza bidezko formala aztertu izan dira. Berrikiago, dena den, euskararen transmisioa eta jarraipena aztertzeke paradigma berria hasi da garatzen gurean, emozioen garrantzia nabarmenduz, adibidez, “giza taldeetako kideen arteko harreman gozoen eremuan sortu zen hizkuntza, eta horri atxikirik darraio egun, milioika urte geroago”.

Baztango 15 herrietako bat da Irurita, Elizondorekin batera XX. mendean euskararen gizarte galerririk handiena izan duena, Kasaresen esanetan. Ikertzaileak familia hartu du azterketa unitatetzat, eta bi irizpide jarraitu. Batetik, 12 urte bitarteko seme-alabaren bat duten gurasoak hartu ditu, eta bestetik, familiako kideen hizkuntza gaitasuna hartu du kontuan. Hamar familiako lagina baliatu du: bi familia euskaldun bete (belaunaldi guztietan kide euskaldunez osatuak) eta zortzi familia euskaldun ez oso

(belaunaldi ezberdinetan kide euskaldunez eta erdaldunez osatuak).

### Irurita, karrika eta borda

Hizkuntza elkarbizitza zinez heterogeneoa du Kasaresek Iruritakoa. Familia euskaldun beteak, urri karrikan, nagusi dira bordan, belaunez belauneko jarraipenak etenik izan ez duelarik. Familia euskaldun ez osoak, gehienak karrikan, haurretan euskara ikastera heldu ez ziren gurasodunak dira. Familia euskaldun berriturik bat ere Iruritan denik ez du ezagutu Kasaresek.

Espainiako Gerra zibilaren osteko giroak euskararen gibeleratze handia ekarri zuen Euskal Herrira. Isekak eta burlak ere ez ziren eskas. Beste hainbat lekutan bezala, Iruritako herrian euskara baserriari lotu zitzaion, euskaraz mintzo zena bordari zen Baztanen. Eta, hain zuzen, bordari haiei esker eutsi zion euskarak Iruritan. “Baserrietako iruritarrek, horietako anitz euskaldun hutsak zirenek, euskara eramaten zuten karrikara eta horrela herriaren erabateko erdalduntzea galarazi zuten, tarteka herrikoei euskaraz eginarazten baitzieten”. Alabaina, euskara bereizketa seinale eta gutxiespen bide bihurtu zen. “Euskaragatik

izandako bizipen mingarri horiek beren ondorioak izan dituzte subjektuen ondoko hizkuntza hautuetan. Erdara ez ongi jakiteagatik mespretxua jasan zutenek kostatuta seme-alabek erdara ikastea ziurtatu nahi zuten eta horretarako erdara hutsezko eskola hautatu zuten, beren umeak gutxiespenetik babestearren”. Herriko iruritarren eta bordakoen arteko bereizketa egun guraso diren belaunaldiraino iritsi da, nahiz eta bereizketa gaintutua den orain. “Oraingo iruritar gazteendako euskara/erdara ez da herritarren elkarbizitza bereizten duen dikotomia”.

### Etena

Kasaresek osatutako glotohistoriek erakutsi dutenez, 1945 inguruan karrikan hazitako haurretan, hamarretik lauk euskaraz ikasi zuen etxean. Aldiz, 1970 aldera sortutakoetan, hamarretik batek edo bik baino ez. “Oraingo aitaxi-amatxik beren seme-alabekin (oraingo haurren gurasoekin) nola jokatu zuten aztertuta ikusi dut herrigunean bizi zirenek ez ohi zirela beren umei euskara egin, nahiz eta aita-amak euskaldunak izan. Guraso bakarra euskalduna zen kasuetan, batean ere ez zuten seme-alabek euskara



Kasaresen arabera, Iruritako hizkuntzaren gizarte erabileran bada arau bat, aski nabarmena: haurrei euskaraz egiten zaie.

etxean ikasi”. Hau da, Txepetxek 1970eko hamarkadan esan zuena: “Umeei ez zaie erakusten etxean”.

Oraingo haurren gurasoak Iruritako karrikan hazi ziren 70eko eta 80ko hamarkadetan, erabat giro erdaldunean. Berriemaileek iker-tzaileari esana da: “Ez zen euskaraz solasten, ez etxean, ez kanpoan, ez eskoletan, ez inon”.

Karrikako haur gehienek ez zuten euskararik jaso etxean. Ume euskaldun apurrek eskolan eta plazan ikasi zuten gaztelania. Gaztelania hutsezko eskolak berealdiko eragina izan zuen ikasgelatik kanpo ere. “Haur euskaldunak erdaraz egitera ohitu eta ikaskideen artean bezala, anai-arrebekin ere mintzaira horretan hasi ziren. Ikasgelatik eta jostaldietatik eraman zuten azkenean haurrek hizkuntza etxera eta guraso batzuk, ordura artio euskaraz egiten zutenak, erdaraz egiten hasi zitzaizkien seme-alabei. Familia batzuetan, seme-alabak eskolan erdaraz hasi eta ondoan aldatu ziren haurrekiko hizkuntza portae-rak, euskaraz egitetik erdaraz egite-ra. Hala bada, haurrek etxe barneko hizkuntza aldaketari eragin zioten”. Ohi denez, gurasoek jarre-ra ezberdinak hartu zituzten. Zen-

baitek ez zuten onean eraman beren umeek eskolaz kanpo gaztelaniaz egitea. “Txikitako euskara atxiki duten oraingo aita-ama batzuek oroitzen dute mintzairari eusteko nolabaiteko giroa izan zutela familian. Gurasoek etxeko euskara erdarara ez aldatzeko eragin zieten seme-alabei, batzuetan erdararen erabilera garbi gaitzetsiz”. Batak belarrimotz esango zion haurrari, bestea haserretuko zen...

**“70eko eta 80ko belaunaldi hura guraso egin delarik, seme-alabekin mintzatzeko bere lehen hizkuntza –gaztelania– ez baina bigarrena hautatu du, euskara”**

Paula Kasares

Kasaresek dioenez, “eskolako hizkuntza, harreman eszentrikoak (adinkideen artekoak), eta familiakoak (belaunaldien artekoak) ez dira hizkuntza jarduera erabat bereziak. Haurtzaroko hizkuntza sozializazioaren prozesu zabalagoan txertatzen dira eta elkarri eragiten diote. Familiaren mintzairari dagokionez, gurasoen jarrerak funtsezkoa dirudi etxe barneko harremanetan euskara atxikitzeko”.

### Euskara eskolara...

1970ekoa da Elizondoko Baztan ikastola. Eskola publikoan berriz, –hala Elizondon berean nola gainerrako herrietan–, beranduago sartu zen euskara. Kasaresek dioenez, “1980ko hamarkadaren erdialdean eskola publikoetan jarduten zuten maisu-maistra euskaldunak izan ziren, hein handi batean, irakaskuntza publikoan euskara sartzeko prozesuaren sustatzaile eta aitzindariak”. Guraso euskaldunen errezelo eta mesfidantzei aurre egin behar izan zieten, gurasoen kontrako jarrerak gainditu behar izan zituzten, baina, ageri denez, Baztango herrietako eskoletako irakasleak konbentziturik zeuden gaztelania hutsezko eskolak euskara abiada bizian galtzera zeramala. Eta ez ziren oker, euskara eskolan sartzek berebiziko ondorioak izan baititu hizkuntzaren erabilera ohituretan, eskolan ez ezik, handik kanpo, bai familian eta bai karrikan bertan.

Gaur egun guraso berri direnek ez zuten aukerarik izan euskaraz eskolatzeko, euskara karrikatik kanpo ikusi ere zuten, eta euskara eskolara sartzek karrika horrexetara ekarri duen iraultzaren lekuko dira. Euskarazko eskolatzetik gabe ez dute uste etxean haurrak gaztelaniaz hazteko ohitura aldatuko zenik. “Beraz, eskolak etxeko hizkuntza erabilerari eragin dio eta eragin bideetako bat haurrak beraiek izan dira”.

### ...eta eskolatik karrikara

Eskolara sartzek batera, euskarak gizarte ikusgarritasuna irabazi zuen eta orduko gazte batzuek –gaur egun guraso berri ditugunak– hizkuntza ikasteko hautua egin zuten, hizkuntzaren aldeko giro beroa baliatuz. 70eko hamarkadaren bukaera aldera gau- eskola sortu zen Iruritan. Gero, AEK Elizondon. 80ko hamarkadaren amaieran, gazteak euskalduntzen hasi ziren, unibertsitate ikastaroak eginez eta beste. Kontzientzia, diote batzuek. Maitasuna, nahia, gogoia, beste batzuek. “Euskararekin eratu zuten harreman berrian, euskaraz aritzen hasi zirelarik, anai-arrebak, lagunak, kirol taldekideak, bikoteki-dea... izan zituzten bultzatzaile”.

Eta euskaraz mintzatzeko erraztasuna lortzeko garaian, horra umeak, ilobak eta gainerakoak. Zenbait kasutan, anaia-arreben arteko edo belaunaldi ezberdinetako kideen arteko erabileraren bidez sartu zen euskara etxean. Kasaresek bildu duen lekukotasun batek diosku: “Gaztetan euskara AEKn ikasi, eta orduan, aita euskaraz hasi zen nirekin, eta nire amatxi ere bai”.

### Familia bitarte

70eko eta 80ko belaunaldi hura guraso egin delarik, seme-alabekin mintzatzeko bere lehen hizkuntza –gaztelania– ez baina bigarrena hautatu du, euskara. “Neurri batean edo bertzean, euskara hautatu dute seme-alabekiko harremanetarako. Seme-alabak euskaraz hazi nahi izan dituzte hizkuntza hori adinkideekiko harremanetarako usu erabiltzen ez badute ere. Beren seme-alabekin zein hizkuntzatan eginen duten hautatzen dutelarik erabaki hori ezin azal daiteke transmisioaren ideia mekaniko batetik. Egun ez zaigu baliagarria [Xabier] Erizek emandako azalpena, *habitus* kontzeptu soziologikoari lotua, ez eta Sánchez Carriónnek proposatu zuen eredu dikotomiko eta sexoglosikoa ere. Nire irudikoz, erabaki horretan subjektuek hizkuntzarekin eratu dituzten harremanek eta bereganatutako identitateak jokatzan dute. Lehen umea sortzeak seme-alaben hizkuntza sozializazioaren aitzinean jartzen ditu gurasoak eta horrek dakarzikie hautu eta erabakiak. Alde horretatik, familia eratzea (haurrak izatea) hizkuntzaren belaunez belaneko jarraipenari eragiten dioten baldintza soziohistorikoen nolabaiteko katalizatzaile gisa agertzen zaigu”.

Egun, iruritarren belaunaldi berriek etxe eta familia giroan ikasten dute euskara, oro har, eta eskolan hasi orduko gure hizkuntzan mintzatzeko gauza ohi dira. “Ber-

tzalde, gurasoen hautuek ondorioak izan dituzte familiaren bertze kideengan. Haurrei euskaraz egitea egokientzat eta naturalentzat ikusten delarik, haurra euskaraz eskolatu(ko) bada, aitatxi-amatxi euskaldunek ere euskaraz egiten dute, nahiz eta duela hiru hamarkada beren seme-alabei egin ez”.

Hizkuntzaren aldeko giroak, eskolaren lanak eta egun guraso berri direnen erabakiek eragin diote, Kasaresen esanetan, aitatxi-amatxien hizkuntza portaera berriari. “Izan ere, beren seme-alabek umeekin euskaraz egiten ez duten kasuan, aitatxi-amatxi euskaldunek ere ez dute bilobekiko hizkuntza portaera aldatu”, eta seme-alabak gaztelaniaz hazi

**Euskara eskolan sartzeak berebiziko ondorioak izan ditu hizkuntzaren erabilera ohituretan, eskolan, familian eta karrikan**

zituztenez ber, gaztelaniaz mintzo dira bilobekin ere. “Nire ustez, haurren hizkuntza sozializazioarekiko aitatxi-amatxiek izan duten portaera aldaketa hori, batez ere, haurren eta helduen arteko elkarreraginaren ondorioa da. Izan ere, ez helduek bakarrik, haurrek ere aktiboki jokatzen dute beren hizkuntza elkarreraginetan. Hala bada, belaunaldien arteko hizkuntza eraginaren norabidea nolabait adierazteko, goitik beheiti ez ezik behetik goiti ere doala ikusi behar dugu. Hainbat belaunalditako subjektuek elkarri eragiten diote, haurrak ez dira helduengandik datozkien hizkuntza eraginaren jasotzaile pasibo hutsak. Ez da egokia transferentzia eta transmisioaren kontzeptuek beren baitan dakarten adiera bertikala eta norabide baka- rrekoa, goitik beheitikoa”.

Kasaresen ikerketak dioenez, Iruritan hizkuntzaren gizarte erabileran bada arau bat, aski nabarmena: haurrei euskaraz egiten zaie. Haiei gaztelaniaz egitea arraro da, eta bitxi, eta nahiz eta euskaraz ongi jakin ez, haurrei euskaraz egitea da iruritarrek normaltzat jotzen dutena. Are gehiago, haurrak etxean gaztelaniaz hastea gaitzetsi ohi dute gurasoek. “Haurren familia barneko hizkuntza sozializazioaren baldintzen atzean gurasoen mintzaira balioak daude. Baina hizkuntzaren transmisioa ez du gurasoen nahi izate soilak ahalbidetzen. Hizkuntza sozializazioa gizarte jarduerak bermatzen du, ez gurasoen nahikari hutsak. Beraz, haurrekiko portaera hori hagitz esanguratsua da. Gurasoek beren nahikaria jarduera bilakatu dute, hizkuntzarekiko motibazioa aribide bihurtu”. Eta haurrak ere jardunbidean jarri. Gurasoek haurrak, haurrek gurasoak.

### Txepetx 1970, Kasares 2011

Nahi izatea. Gizarte jarduera. Haurrekiko portaera. Gurasoekiko. Edo esan dezagun Kasarenen hondar solasetan: “Iruritan euskararen belaunez belaneko jarraipenaren sendotzearen atzean herriaren beraren osaketa ikusi dut. Aztertu dudana euskararen bidez gizarte haustura gainditu duen komunitatea da. Iruritan baserriak eta herrigunea ditugu, jarraipena eta etena, baina euskararen jarraipenak dikotomia horiek berdindu ditu. Azken lau hamarkadetan Iruritan euskararen jarraipena sendotu da mintzairak espazioan hausturak josi eta denboran etendurak lotu ahal izan dituelako. Bertzenaz, Txepetxek 1970ean iragarri bezala, berak entzundako haurrak hondarreko iruritar euskaldunak izanen ziratekeen”. ■



Babeslea: Hondarribiko Udala



Hondarribiko Udala

# Gatazka gaiztotzen ari da hainbat hilketaren ondorioz

Hogei kaputxadunek Werner Luchsinger enpresa gizon eta latifundista txiletarraren etxea erre zuten urtarrilaren 4an. Barruan hil ziren bera, eta Vivian McKay emaztea. Ordutik, Maputxe herrian edo Wallmapun giro politikoa asko gaiztotu da.

| LANDER ARBELAITZ |

MAPUTXEEI EGOTZI dizkiete urtarrilaren 4ko gertaerak eta Txileko presidente Sebastián Piñerak Pinocheten ondaretik asko duen Lege Antiterroristaren erabilera zorrotza agindu du. Jada polizia operazioak egiten ari da maputxeen hainbat herritan. Orain lau urte poliziak tiroz hildako Matías Catrileo 22 urteko maputxearen izena berriz azaleratu da, itxi gabeko zauriekin gertatu ohi den bezala.

Maputxe herriaren eta Txileko Estatuaren arteko harremanak zailak dira. 1883tik indigenek beren lurraldea aldarrikatu dute, eta Estatuak nolabait esateko, guda deklaratu die, beren oinarritzko eskubide asko ukatuz.

Egun 800.000 maputxe inguru bizi dira, gehienak herrialdearen hegoaldeko La Araucanía eta inguruetan. Piñera egungo presidente eskuindarraren gobernuarekin zuten harreman txarra erabat gaiztotu da 2013a hasi denetik. Hementekak begiratu besterik ez dago ikusteko Piñerak jatorrizko herri honekiko duen ezinikusia, herrialdeko hedabide nagusiak lagun dituela zabaldua. *Terrorista* terminoa hitzetik hortzera darabilte maputxeen gaiak jorratzean.

Ekintzaile maputxeek beren lurretan ezarritako latifundisten aurkako erasoak egin izan dituzte, ondasunei su emanaz, eta normalean hildakorik eragin gabe.



Urtarrilaren 4an Matías Catrileoren heriotza gogoratzen dute maputxeek, 2008an poliziak tiroz hildako aktibista.

Mapuexpress webgunean ere, urtarrilaren 4ko ekintza egin zutenek “marra gorria gurutzatu” zutela diote. Baina zergatik hil dituzte Luchsinger eta bere emaztea?

## Matías Catrileoren heriotza

2008an Txileko poliziak Matías Catrileo tiroz hil izana gakoa da egun La Araucanía gertatzen ari dena ulertzeko. Mapuexpress gunean horrela azaldu dute: “Kaputxadunek Luchsingerri, bere emazteari eta beren ondasunei su eman bazioten, Catrileoren heriotza gogoratzeko ekintzen barruan izan

“Catrileoren heriotzak piztu zuen orain lehertu den bonba honen metxa”, dio Mapuexpress webguneak

zen. Catrileoren heriotzak piztu zuen orain lehertu den bonba honen metxa”.

Latifundisten aurkako ekintza batean, Catrileo eta beste kide batzuk Luchsingerren lurretan sartu ziren (1.200 hektarea), maputxeek berena dela aldarrikatzen duten eremuan. Txileko Lege Antiterroristak baimenduta, Estatuak ordaindutako segurtasun indarrak ari ziren lur horiek zaintzen, eta maputxeak eremuan sartu zirela ikusirik poliziak tiroka hasi ziren. Catrileo bizkarrean jo zuen bala batek, birika zulatu zion,

eta minutu gutxiren buruan hil zen. Ihes zihoazen maputxeek gorpua eraman zuten eta irrati komunitarioen bidez bolbora baino azkarrago zabaldu zen albistea, egunkari nagusietara iritsi arte. Tiro egin zuen polizia frogak faltsutzen saiatu zen, eta azkenean militarrek epaitu zutenean, ez zuten zigortu. Egun polizia-gorputzean lanean jarraitzen du.

Geroztik justizia eske dabilta maputxeak, gaztea beren kausaren sinbolo bilakaturik. Urtarrilaren 4an Catrileoren memoria gurtzen dute maputxeek.

Luchsingerren eta McKayren heriotzaren ondoren, Txileko Estatuak poliziak militarra eramaten ari da maputxeak bizi diren eremuetara; horrek istiluak eragin ditu poliziarren eta herritarren artean. ■



**Joseba Erkizia  
HABEko zuzendari**

URKULLUREN LEGEALDIAN Joseba Erkizia (Andoain, 1958) izango da HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakunde zuzendaria. Iñaki Uriberen tokia hartuko du Erkiziak. Andoaindarra 2005etik 2009ra ere kargu berean izan zen. Hizkuntza Politikarako sailburuordea Patxi Bazarrrika izango da. Honek ere kargu bera bete zuen 2005etik 2009rako legealdian.

**IV. Euskal Soziolinguistika jardunaldia:  
ikasleen hizkuntza erabilera eskola giroan**

ARRUE IKERKETAREN emaitzak plaza-ratu eta haien gaineko hausnarketa egingo dute urtarrilaren 31n, Donostian, Soziolinguistika Klusterrak antolatutako jardunaldian. Egitarauak berak dioenez, Arrue ikerketarena gaur arte egin den eskola hizkuntza erabileraren datu jasoketarik handiena da. Lehen aldiz EAEko bi mailatako ikasle guztien erabilera datuak jaso

dira. 9-10 urteko (LH4) eta 13-14 urteko (DBH2) ikasleek ikasgelan, jolastokian, ikaskideen artean eta irakasleekin egiten duten hizkuntza erabileraren datuak eskainiko dira. Besteak beste, mahai-ingurua antolatu dute eta ondokoek hartuko dute parte: Nekane Goikoetxea, Jone Miren Hernandez, Iñaki Martinez de Luna eta Mikel Zalbide.

**Bahea**

**Koldo Tellituk Ereiario kanalean (berria.info) esanak:**

“Azkenaldian mezu nagusia, mobilizazio bakoitzaren aldarrikapen konkretua, erdera hutsean ikustea ohikoa ari da bihurtzen eta gero, azpian, pankartaren behelaldean euskaraz esaldi generikoren bat. Mezu garrantzitsua erderaz jarri ohi da, eta gero, pankarta bukatzeaz dagoenean, norbaitek gogoratzen du zertxobait euskaraz agertu behar dela eta orduan txaplata moduan esaldiren bat gehitzen da.

Etengabe ari gara administrazio publikoei euskararen normalkuntzan parte-hartze eta ahalegin handiagoa eskatzen, baina agian modu kritikoan begiratu behar diegu eguneroko jardunean euskararen erabileraren garrantzia horren argi ez duten talde politiko, sindikatu eta herri eragileei ere. Eta baita norbanakoei ere, geure buruari, aldarrikapenen batean eragile aktibo garenean. Argi dago euskararen normalizazioan beste ekimen batzuk askoz ere garrantzi handiagoa dutela, baina aldarrikapenen erderatze hau ez da inola ere berri ona”.

**EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA****Nazioarteko Moneta Funtsaren ardurak**

JOAN DEN ASTEAN munduko ekonomiari loturiko gertaera bat ikusi genuen, eta gertuko gure errealitatean ere eragina izan dezake. Gertaera horrek zerikusia du European egiten ari diren doikuntzekin eta defizitaren kontrolarekin, bereziki Espainiako Estatuan. Politika horrek milioika langabetu eragin ditu, baita milaka enpresa ixtea, etxegabetzeak, prekarietatea, pobrezia orokorra, eta suizidioak ere. Politika horiek Nazioarteko Moneta Funtsak (NMF) sustatu ditu, eta European, Alemaniako kantziler Angela Merkel izan du buru, baina Espainiako Gobernuak eta autonomia gobernuek ere segitu diote. Kontuen arabera, European, gastatzen ez den euro bakoitzarengatik, aktibitate sortzeko balioko lukeen 1,5 euro deuseztatu da.

Politika horiek ez dute ahalmenik izan hazkundera sortzeko eta ondorioak krudelak izan dira. Bada, orain, NMFeko arduradunek diote aurreikuspenetan erratu zirela eta hazkundera eta inbertsio politikara itzuli behar dela. Eta lasai asko geratu dira! Bistan da analisi berriaren ondorioz erantzukizuna hartu beharko

luketela, aurreikuspenak egiteko gaitasun eskasa izan dutelako, eta euren karguak utzi beharko lituzketela, haiengatik soldata milioidunak jasotzen ari baitira. Hainitsu egon al dira? Ez al zekiten doikuntzetan eta defizit publikorik ezan oinarrituriko politikak ez duela aterabiderik inorentzat, ezta hartzekodunentzat ere? Azken hauek badakite, inork baino hobeto, ez bada hazten ezin dela kobratu. Zein sinesgarritasun eskaini dezake NMF gisako organismoak, analisia egin, erra-tua zegoela onartu, eta berehalakoan arduradun nagusiak kanporatu ez baditu? Zeinek zuzentzen du NMF? Ez harritu irakurle: Aznarren Ekonomia ministro-ohi Rodrigo Rato izan zen aurreko zuzendaria. Gero Bankian hartu zuen ostatu, kiebrara eraman zuen, eta orain inputaturik dagoen arren, Telefónica-ko aholkulari gisa “saritu” dute; kargu horrengatik 200.000 euro baino gehiago kobratuko du! Halako zuzendariarekin...

**Juan Mari Arregi**



# Maien mundua abenduaren 21ean berpiztu EZLNrekin

40.000 emakume eta gizon mobilizatu dituzte 2012ko abenduaren 21ean zapatistek Chiapasen. Gehienak maia etniaren batekoak, neguko solstizioaz gain beren antzinako egutegiaren aldi luze baten akabera, 13 Baktun delakoarena, mugarrizten zuen egunean. Maia jendea bizirautea lortzen ari da XXI. mendean, krisi globalaren ertz batean.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

KEZKATURIK EI ZEGOEN MUNDUA, edo gutxienez zer egin hoberik topatu ezin zuen mundutar asko, ludiaren akabera 2012ko abenduaren 21ean zetorkeela eta. Ez da horrelakorik jazo eta inor ez da harritu.

Baina data horren bueltako txepelkerien atzean dautzan xehetasunak jakin nahiak ezagutarazi digu askori nolaz maiek zeukatzen antolatuta egutegi bat oso zehatza, zeinaren 13. baktun delako ziklo luzea burutzen omen zen aipatu egunean. Erruz aipatu dira zibilizazio haren antzinako eraikuntzak, jakinduria, gainbehera... gaur haien askazia bereko milioika jende hezur-haragizko existituko ez balira bezala.

Metaforak eta paradoxak maite dituzten EZLNko buruzagiek egun horixe hautatu zuten XXI. mendean jendeok bizirik daudela erakusteko. Profezien parafernaliatik eta turisten *smartphone*etatik urrun, Lakandona oihaneko txoko batean isilik manifestatu ziren abenduaren 21ean tzotzil, tzeltal, chole, zoque eta tojolabale etnietako herritarrak.

Kronikek diote 40.000 herritar inguruk bete dituztela Las Margaritas, Comitán, Altamirano, San Cristóbal de las Casas eta Ocasingo karrikak, aurpegiak estalirik, esku hutsik eta isilpean. Chiapaseko gobernadore berriak, Partido Verde

Ecologistako Manuel Velasco Coello prentsari argitu dio polizia eta militarrei aurretik agindu ziela kasernetatik ez irtetea, nolabait hitzarturik balego bezala bi aldeek artean erakustaldia liskarrik gabe amaitzea.

Ondoko egunetan, Urtats gaua artekoetan, EZLNren buruzagiek eta zehazki Marcos *subcomandanteak* hiru agiri plazaratu dituzte munduari jakinarazteko mugimendu bezala bizirik dirautela eta 2013an urrats berriak emango dituztela.

Ospakizunak urteko azken gaueko jai handiarekin bukatu ziren, EZLN Mexikoko gobernuaren kontra oldartu zen 1994 hartatik 19 urte betetzen ziren goizaldean. 1994ko lehen egunean, hain zuzen Mexiko, Kanada eta AEBen artean neoliberalismoaren aitzindarietako izan den Ipar Amerikako Mugarik Gabeko Merkaturia (NAFTA ingelesezko sigletan) estreinatzen zen egunean aipatu bost herrien jabe egin zen EZLN.

Gobernuaren zifretan zienta bat ekintzaile, soldatu eta zibilen heriotza eragin zuen gerra laburraren eta ondoko urteetako gertakizunen kontakizun zehatza *Zapatistas, crónica de una rebelión* dokumentalean (1:53ko iraupena, Internetez ikusgai) egina du *La Jornada* egunkariko ekiptoak.

*Desinformemonos* gunetik hartu dugun argazki hau 2012ko abenduaren 21ean Chiapasoko Ocasingo herrian dago egina, EZLNk milaka herritar mobilizatu zituenegana. Lehen lerroan emakumeak, aurpegiak zapiz estalirik; atzean gizonezkoak, kagulatuturik. Egun gutxiren buruan zapatisten zuzendaritzak zabaldu agirian esplikatu zuen ekintza: “Duela 19 urte ezustean harrapatu genituen, haien hiriak su eta odol artean hartuz. Orain berriro egin dugu, armarik gabe, heriotzarik gabe, suntsiketarik gabe. Horrela bereizten gara agintzen dutenean beren menpekoen artean heriotza banatu zuten eta banatzen duten horietatik. Duela 500 urtekoak gara gu, duela 44 urtekoak, duela 30 urtekoak, duela 20 urtekoak, orain dela egun gutxikoak. Zapatistak gara, txikiak, aberriaren azken zokoan bizi, borrokatu eta hiltzen direnak, salgai ez daudenak, amore ematen ez dutenak”.

1995 eta 1996an, Mexikoko gobernuak eta zapatistek bake negoziaketa luzeak burutu zituzten, nazioartetik iritsitako beharzaileen eta bitartekari lanak egiten zituen Samuel Ruiz apezpikuaren begiradapean. *San Andresko itunak* biltzen ditu bi aldeek adostutako gaiak: Indigenen eskubideak eta kultura, Demokrazia eta justizia, Ongizate eta garapena, Berradiskidetzea eta Emakumearen eskubideak. 2013aren hasieran EZLNko buruzagiak San Andresen hitzartuei atxikitzen zaizkio, Estatuari aurpegiaratu bost puntuetatik lehenean besterik ez dituela eman urratsak.

## Hemen ginen eta gara

Azken hilabete luzeetan isilik zegoen EZLN. Urte bukaeran zabaldu-tako hiru agiritako batean argitzen dute modu autonomoan funtzionatzeko lan isilean aritu direla: “*Nosotros, que nunca nos fuimos aunque así se hayan empeñado en hacerles creer los medios de todo el espectro, resurgimos como indígenas zapatistas que somos y seremos*”.

EZLNk aldarrikatzen du herriotan bizimaila nabarmenki hobetu dutela, inguruan agintari ofizialen mende dauden herri indigenetan baino hobeki bizitzen dela berene-





baginen. Isilpean ezkutatu gintuzte-  
nean, baginen. Eta hemen gaude,  
izanez”.

Horren ostean oharra: aurreran-  
tzean zapatisten hitza selektiboa  
izanen dela eta gehienetan ezingo  
dutela ulertu beraiekin moda  
mediatiko eta koiunturalei men egin  
gabe dabiltzanez beste inork:  
“Hemen, petto ez gutxierekin eta  
neke handiekin, mamitu da politika  
egiteko bestelako modua. Gutxi-  
k, oso gutxi, edukiko dute ezagutu  
eta bertatik ikasteko zoria”. Auto-  
isolatze iragarpen horren gakoak  
zein ote dira?

Bitartean, aginte ofizialena den  
beste alderditik ere zenbait pieza  
mugitu dira. Mexikok presidente  
berria edukitzeaz gain, Chiapas  
estatuak gobernadore berria dauka  
2012az geroztik. Manuel Velasco  
Coello Partido Verde Ecologistakoa  
dela esateak ez du asko argitzen,  
jakinez gero alderdi hori munduko  
berdeek beren internazioaletik kale-  
ratu dutela, eskuindarra eta heriotza  
zigorraren aldekoa izateagatik.  
Baina Velascok bat egin du EZLN-  
rekin San Andresko itunaren alda-  
rrikapenean. Bi preso politiko zapa-  
tista askatuko dituela ere agindu du.

Raul Zibechi kazetari uruguaitar-  
rak *Garan* plazaratu *La tenax resis-  
tencia zapatistan* idatzi du: “Zapatis-  
tek erakutsi digute badirela politika  
egiteko beste moduak, Estaturen  
instituzioak hartzea ez direnak; hau  
da, azpitik sortzea erabakiak tal-  
dean hartzeko moduak,  
gure bizitzak ‘obedituz  
agindu’ asmoaren ara-  
bera sortu eta birsor-  
tzea”. ■



tan: “PRIri botoa ematen dioten  
indigenak berak gure ospitale, klini-  
ka eta laborategietara datoz, gober-  
nuarenetan ez baita ez botikarik, ez  
tresneriarik, ez medikurik, ez langile  
kualifikaturik”.

Etxebizitzetan, nekazaritzan eta  
abeltzaintzan, eskoletan, emaku-  
meen berdintasunean, kulturgingin-  
tzan eta abar egindako urratsak  
nabarmendu ondoren, sei puntutan  
mamitu du deklarazioa EZLN.

Zapatisten ibilbidea ezagutzen  
duten adituek nabarmendu dituzte:  
Congreso Nacional Indígena  
(CONI) erakundearen barne jarrai-  
tzea, Mexikoko eta mundu osoko  
mugimendu sozialekin zubi berriak  
eraikitzeke erabakia, alderdi politi-  
ko mexikar gutziekiko aldentze kri-

tikoa eta Gobernuari eskua zabal-  
tzea berriro San Andresko itunak  
markatu bideari ekiteko.

Badirudi, abenduaren 30eko  
deklarazioak, beste hainbat pasarte  
batzuek bakarrik ulertzeko moduan  
idatziak dituela. Komunikabide edo  
komunikatzailearen bati edo batzuei  
igorritako hau, esaterako: “Lehen  
izan genuen zenbait komunikabide-  
ren arreta onest eta zintzoa pizteko  
zori ona. Eskertu genuen. Baina  
ondorengo jokabidearekin ezabatu  
zuten. Mediatikoki existitzen ginela  
apustu egin zutenek, gezur eta isil-  
tasunezko hesiak desagerraraziko  
gintuela ziotenek, huts egin zuten.  
Ez kamera, ez mikrofono, ez belarri  
eta ez begiradarik ez zenean ere, gu  
baginen. Iseka egin zigutenean ere



ZINKUNEGI  
OPTIKA

**Garantia.**

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,  
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

## Armak, desegitea...

**URTARRILAREN 12A** iragan da eta ikusi, entzun eta irakurritakoen ondoren, komeni da ondorio batzuk ateratzea. Hona hiru:

1) Presoen egoera konpontzen has dadin, mobilizazio erraldoiak egitea ezinbestekoa da. Euskal gizartean gaiarekiko sentiberatasun handia dagoela erakustez gain, konpontzeko dagoen arazo larri bat indarrez azaleratzen dute.

Urkullu lehendakariak espetxe politikan aldaketak eskatuko dizkio Mariano Rajoyri. Begiruneaz ere mintzatu da lehendakaria, baina azpimarratzea manifestazioan 100.000 herritar egon zirela eta ez 3.000.000 –denei errespetua diela esateko bada ere– ez da begirune erakusle txukunena. PPK ere, esaterako, hori bera azpimarratu zuen iazko Diadako milioi eta erdi pertsonari buruzko manifestazioaz, milioi gehiago geratu zirela etxean.

2) Presoena bake prozesuaren testuinguruan konpondu behar da eta, ika-miken gainetik, EAJK eta EH Bilduk gutxienezko akordio batera heldu behar dute gai honetan. Edo EH Bilduk eta PSEk lortu behar ote dute lehenik? Loiolako mahaiari kea zerionetik ere ez da hainbeste pasa. Azaldu liteke zer aldatu den hainbeste ordutik hona elkarrizketa gunerik –berdin da non– errepika ez dadin? Gerrarik bortitzenetan etsai gisa aritutakoek akordioetara iristeko gai badira, nola ez da posible izango hemen ere gauza bera lortzea? Ezin da ahanzturarik egon, ezta mendekurik ere, baina bi kontzeptuon artean bada negoziatorako tarterik. Espainiako legea bete behar dela? 600 gatiburekin zer erremedio! Eta hala ere, hor ere bada konponbiderako tarterik.



ASKATASUNTAUPADAK/INSTAGRAM

Arrazoi desberdinengatik bada ere, eta II. Mundu Gerraren irabazle nagusi gisa, AEBek eta Errusiarrek argi zuten Alemania lagundu behar zutela bere burua altxatzen. Eta hala egin zen, baina nagusitze nahiak, mesfidantza eta beldurraren ondorioz, Alemaniaren zatiketa eta gerra hotza finkatu zuen 40 urtez. Irlandara begiratzea besterik ez dago bake prozesuak luzeak direla ikusteko, baina

*Horiek izan daitezke ETAREN azken kartutxo sendoenak, hobe berandu baino lehen erabiltzea*

hasiera bat behar dute, bestela gai batzuk izoztu egingo dira, gaizki konpondu eta euskal gizarteak urtetan ordainduko du.

3) ETA ez da arazorik handiena gaur egun, baina bai ikusgarriena eta erabilgarriena, manipulagarriena: “ETA desagertu arte ez da mugimendurik emango” leloa da

horren lekuko adierazgarriena. “Eta bestela ere ez”, gaineratu du Alberto Ruiz-Gallardon PPko Justizia ministroak, baina hori ez da hain sinesgarria.

Bihar bertan ETAK armak entregatu eta deseginda ere, presoak ez lirake kalera ateratzen hasiko. Baina denak adierazten du, bake prozesuan aurrera egiteko eta presoen gaia konponbidean jar dadin, erakunde armatuak urrats


horiek eman beharko dituela. Dagoeneko ez dago galtzekorik urrats horietan, aurrera begira dena da irabazteko.

Alde bakarreko pausuen bidez, errealitateari egokitze duen ahalmena argi erakutsi du ezker abertzaleak. Horiek izan daitezke ETAREN azken kartutxo sendoenak, hobe berandu baino lehen erabiltzea. Nekez pasatuko da beste urtebete berdin. ■



ASTE HONETAKO

# zozketak



## Besaro Landa Hotela

Bi gau  
bi lagunentzat

Iratiko oihanaren sarreran  
Irigoien, 5  
Itzaltzu NAFARROA

[www.besaro.es](http://www.besaro.es)

1



## Beriain 19+2

Igoerak oinez, bizikletaz  
eta eskaladak

5 liburuxka opari

Beriain NAFARROA  
[www.beriaimendia.com](http://www.beriaimendia.com)

2



## euskara finlandiera HIZTEGIA

5 hiztegi opari

[www.suomitar.org](http://www.suomitar.org)

3



## Artez euskara zerbitzua

2013  
5 aisiagenda opari

Luzarra 10 - 2 Sol.  
Bilbo BIZKAIA

[www.artez.net](http://www.artez.net)

4



## Okatxu

2 komiki opari

[www.argia.com/denda](http://www.argia.com/denda)

5

## AZKEN IRABAZLEAK (2350. Argia)

### ARBELAITZ jatetxea

• Mikel Sarriegi Etxezarreta (Beasain)

### BILBOKO EUSKAL MUSEOA

• Eider Illarramendi Azkue (Zarautz)

• Iñigo Gogenola Bilbao (Berriatua)

• Isabel Razkin Lizarraga (Uhart-Arakil)

• Josu Aldama Larena Bitoriano (Zuia)

• Idoia Jauregi-arraburu Abasolo (Arrasate)

### ARTIUM Arte Garaikideko Euskal-Zentro Museoa

• Maria Jesus Zubikarai Erkiaga (Bermeo)

• Edurne San Martin Larrañaga (Eibar)

• Jesus Mari Olaizola Lazkano (Zarautz)

• Jose Felix Zamakona Aranguren (Markina-Xemein)

### EKAINBERRI

• Mikel Iriondo Eguren (Legazpi)

• Maritere Gonzalez Bilbao (Berango)

• Aitzol Goikoetxea Goldarazena (Hondarribia)

• Karmele Señorena Arzadun (Donostia)

• Eukeni Abasolo Galdeano (Gasteiz)

• Kari Lopez Davalillo Bañuelos (Galarreta)

### EGUTEGIA

• Iñaki Goñi Irazusta (Donostia)

• Koldo Elorz Leoz (Iruñea)

• Begoña Munduate Aierdi (Ataun)

• Uxune Iriondo Urbiztazu (Getxo)

• Aitziber Dorronsoro Aizpurua (Deba)

\* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

## PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • [gunea@argia.com](mailto:gunea@argia.com)

[www.argia.com/gunea](http://www.argia.com/gunea)

Gunea

argia





# ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzearra, 1  
Zumartegi industrialdea  
☎ 943 37 11 50  
20170 Usurbil (Gipuzkoa)  
[www.atxegajauregia.com](http://www.atxegajauregia.com)

